



Tren sozialaren aldeko deialdia / 8-9

Iparraldeko Autobiako (A-1) gerriratuagatik bi etxebizitza eraikin bota ditu Nafarroako Gobernuak / 6

Lizarragako Kontzejuak jakinarazi du herriko taberna-jatetxeak zabalik jarraituko duela / 13



Sakanako xakelariak Espejon biltzen dira. Santi Gonzalezekin salto kualitatiboa eman dute / 18-19

Lakuntzako Udalak herriko metalurgiaren historia jaso du ikus-entzunezko lan batean / 9

Sakanako Ibilaldiak Palestinan lan egiten duen UNRWA agentzia lagunduko du. Izen ematea, zabalik / 17-18

Urdiaingo hiru lagunek osatzen duten Haizkan taldeak 'Zauriekin' diskoa kaleratu du / 23


SINADURAK



JOSUNE AZPIROZ
IMAZ / 5



MIKEL MAIZA RAZKIN / 22



Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Gizonezkoei zuzendutako prestatuntza saio horietan parte hartzeko izen ematea zabalik dago. Aurreko edizioan bezala, talde bat Lakuntzan sortu nahi da eta bestea, Altsasun. Eskaintza horren berri jakiteko aritutako Haritz Goikoetxea Floresen (Lakuntzan) eta Hasier Gonzalez Larrañagak (Altsasun) eman dute.

Zergatik eman zenuen izena maskuliniteari buruzko tailerrean?

Hasier. Sexismoaren eta genero rolen inguruan hitz egiteak beti zalantzak sortu edo interesa piztu dit. Zalantza horiek argitzeko, eta, jakina, zerbait ikasteko eman nuen izena. Aukera aproposa izan zitekeela ikusi nuen. Azkenean, gizonen artean gai hauetaz hitz egiteko parada ez dugu izaten askotan, eta interesgarria zenez, izena eman nuen. Hasieran zalantzekin, ordu eta egun asko izango zirelakoan, baina, ondoren, egia esan, oso gustura.

Haritz. Oihanaren (Gallo San Roman, Mank-eko berdintasun teknikaria) bitartez izan nuen horren berri Urdiainen. Lagun batzuek horren inguruan hitz egin genuen eta, interesgarria izango zelakoan, parte hartzera animatu ginen. Bost urdindarrek eman genuen izena.

Zure aurreikuspena zein zen?

Haritz. Egia esan, aurreikuspen gutxi. Aurretik ere hizketatu ginen eta ez genekien oso ongi zer egingo zen zehazki; pixka bat, maskulinitate eredu buruz hitz egitea. Gizonena izango zen espazio horretan, hori nola biziko zen jakin-minez.

Hasier. Uste nuen gai hauetaz pixka bat banekiela, baina gero konturatu nintzen oso ezjakina nintzela. Badaude gai edo termino batzuk nik behintzat ez nituela ez kontrolatzen ez ezagutzen. Terminologia hori ikasi nuen. Hasiera batean nik uste nuen gehiago hitz egingo zela genero rolen inguruan, zer suposatzen duen gizona izateak, zer suposatzen duen emakumea izateak, sexu identitateaz pixka bat. Nik horren inguruan baneuzkan za-

"Sexismoak guztiei egiten digu kalte"

HARITZ GOIKOETXEA ETA HASIER GONZALEZ PARTE HARTZAILEAK

Sakanako Mankomunitateko eta Altsasuko Udaleko Berdintasun Zerbitzuek maskuliniteari buruzko tailerrak antolatu dituzte bigarren urtez

lantza asko, gaur egun oso puri-purian dagoen gai bat delako transgenerotasuna, genero identitatea, zis... Batzuetan gazteak entzuten nituen niretako berria zen hiztegia erabiltzen, eta horren inguruan ere zalantzak neuzkan. Alde batetik, zalantza asko uxatu nituen, baina beste alde batetik, espero ez nituen gauza batzuk ikasi nituen. Oso-oso interesgarria.

Nolako tailerra da?

Hasier. Tailerreko dinamizatzailea (Asier Arizkorreta Hurtado) "makina" bat da. Berak galderak edo zalantzak proposatzen zizkigun gure artean hitz egiteko. Talde majo bat elkartu ginen. Lehendabiziko gauza, leku segu-

ru bat da, edozer gauzaz hitz egin daiteke eta zalantza eta iritzi guztiak ongi torriak dira. Nahiz eta irakaslearekin asko ikasi genuen, asko ikasi genuen gure bizipen eta gure arteko solasaldietatik.

Haritz. Pixka bat landu genuen erasoak, gizonen portaerak eta aliantzak, eta, ondoren, zer eragin duten horiek jendearengan. Parte hartzaileen artean elkarrin nahiko elkar eragiten genion, baina berak, Asierrek, ateratzen zituen gaiak eta mahai gainean paratu. Hitz egiteko espazioa ematen zuen, baina beti berak bideratuta. Ez zen hitz egitea hitz egiteagatik. Adinagatik guri ez hainbeste, baina helduagoek kontatzen zuten, esaterako, elkartean esaten zietela: "zer arraio egiten duzue hor?" Beharrezko espazio bat da. Askotan horrelako kontuek, maskulinitateaz, espazio ez mistoak eskertzen dira, maskulinitate hori pixka bat "barrutik" lantzeko. Tarte-kamarteka horrelako espazio batzuk bermatu behar dira, kode bera izan ditzakegunak. Noski, mistoetan ere beharrezkoa da.

Zer moduzko giroa sortu zen?

Hasier. Kristoren giroa, oso ongi pasatzen genuen, barre egiten genuen. Oso talde heterogeneoa eta dibertsoa ginen. Adinari dagokionez, 30 urte pasatik ia 70

urtera arteko gizonak geunden. Iritzi oso interesgarriak ezagutzeko aukera ematen dizu. Beste belaunaldi bateko kontakizunak edo beste errealitate batzuk ezagutzeko aukera ematen du.

Haritz. Sortu zen giroa oso positiboa izan zen. Adin tartea oso handia zen, apika ni izanen nintzen gazteena 22 urterekin. Eta bazegoen askoz helduagoa zen jendea. Nabaritzen zen adin desberdintasuna gauza batzuetan, ikuspuntu desberdinak geneuzkela. Iritzi pila, oso anitza zen. Baina oso positiboa; aditzekoa, ez uztea iritzirik baloratu gabe. Harrigarria izan zen. Askotan aipatzen ditugun gauzak dira, oso erraz erabiltzen ditugun hi-

tzak dira heteroaraua eta beste. Argigarria izan zen, errepeaso moduko bat, birgogoratzea. Eskertzekoa izan zen. Adin gehiago zuen jendearekin gauza batzuen zergatiak eztabaidatu genuen. Gu gazteagoak garelako gauza batzuk jakintzat jotzen genituen, zaharragoek ez zutena ematen. Erasoen kontura luze hitz egiteko tartea izan genuen.

Zergatik sentitzen zara gizon?

Haritz. A zer galdera! Ez dakit esaten zergatik sentitzen naizen gizon. Pertsona batek irizpide edo ezaugarri batzuk izan behar ditu eta nik betetzen ditut. Irizpide horiek, historikoki, gizarteak jartzen ditu; ezaugarrituta du zer izan behar du eta zer ez du izan behar. Horregatik identifikatzen naiz gizon bezala, zerbaitkin identifikatu behar naiz, ez dakit.

Hasier. Beti argi izan dut gizona naizela. Erantzuten oso galdera zaila da. Ez da neure buruan oso presente daukadan sentimendu bat, baina egia da oso zeharkakoa dela. Gizona izatea ez da biologiak ematen dizun zerbait, baizik eta gizartearen baitan betetzen dituzun rol edo portaera batzuek markatzen dizute gizona zarela. Gainera, ikasi genuen gizarte oso binarioa garena: edo gizona zara edo emakumea zara eta oso. Eraikuntza sozial bat da. Lehen, agian, ez neukan hainbeste hausnartuta zer zen edo zer suposatzen zuen gizona izateak.


Noiztik?

Hasier. Kontzientzia dudanetik. Horri ez diot gehiegi erreparatu, agian beti arau horien barruan sartu izan naizelako.


Haritz. Ez dut uste gizon garenok sekula pentsatu dugun galdera bat denik. Betidanik esanen nuke, sekula pentsatu ez badut ere.

Nolako da?

Haritz. Erraza, oso erraza. Privilegio guztiak dauzkagu eta. Ezaugarriak? Beti dugu gure ahotsa besteen gainetik ezartzeko zilegitasuna, guk geure buruari ematen diegu zilegitasun hori, edozer gauza egiterakoan epaituak ez izateko zilegitasuna, askotan paternalismoa jokatzea



"BATZUETAN GAZTEAK ENTZUTEN NITUEN NIRETAKO BERRIA ZEN HIZTEGIA ERABILTZEN"
HASIER GONZALEZ



"HOR BADAUDE AZALTZEN EZ DIREN GAUZAK, KONPLIZITATE EDO ALIANTZA BATZUK"
HARITZ GOIKOETXEA



EGOKI
Ventanas PVC Leihok
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea





Sakanako Mankomunitatearen Lakuntzako egoitzan ibarreko hainbat herritako gizonetzkoak elkartu ziren. UTZITAKOIA

edozein egoeratan, dudarik ez izatea, segurtasuna...

Hasier. Izan behar zara adoretua, sentimenduak ez dituzu kalera-tu behar... Hori ere oso interes-garria da, zeren azkenean sexismoak guztiei egiten digu kalte.

Korporatibismo maskulinoa dago?

Haritz. Badago, bai. Gizonen artean batak besteari bizkarrak begiratzen diogu, konplizitatea dago egoera batzuetan. Tailerrean hitz egin genuen deseraiki beharreko gauza zela. Askotan gela batean sartu eta jende pila ikusiz gero, eta gizonak, zerbait pasaz gero badakizu gizon horiek zure alde egin behar dutela. Hor badaude azaltzen ez diren gauzak, konplizitate edo aliantza batzuk. Senaz.

Hasier. Bai. Hori da ikasi nuen kontzeptu berri horietako bat: inguruko gizonak uneoro gizon izanarazten gaituzte. Presio hori, ez. Esate baterako, egun batean esaten duzu ez duzula alkoholik edango, eta tila bat eskatzen duzu. Tila bat eskatzeagatik prest egon behar duzu zure lagunak etortzea eta esatea: "baina zer ari zara egiten?!" Ondoren heldu direnak gizontasuna galtzearen inguru-koak izan dira. Horrelakoekin maskulinitate hori erreproduzitzen da. Eta ahula bazara, kirol-letan ez bazara oso trebea eta halakoak, helduak eta nortasuna pixka bat finkatuta dugu ondako gutxiago, baina nerabezaroan

egoera hori argi eta garbi ematen da. Eta gizona ez bazara, zara...

Eta zure lagunarte horrek maskulinitate tradizional bat mantentzen laguntzen du. Edo behintzat aldatzeko oztopo txikiak jartzen ditu. Oztopo txiki asko ba handi bihurtzen dira. Eta ez bakarrik lagun taldeak, baita guk ere. Denok egiten dugu presio hori inkontzienteki seguraski, bakoitza dagokiona izateko: gizonak gizon, emakumeak emakume, eta bide hori bide markatu horietatik ez ateratzeko gehiegi. Ateraz gero normaren kontrako zara eta hor badago hitz magiko bat: "marikoia!" Eta horrek ez dauka zerikusirik homosexualitatearekin, ez, baizik eta: "ez zara nahikoa gizon". Oso adierazgarria da nola kartzela txikietan sartuta gauden eta gure genero identitate hori kartzela bat den ere. Eta batzuetan ez hain txikia.

Gizonezko izateagatik pribilegioak ditugu?

Hasier. Bai. Aberatsen pribilegioak argi ikusten ditugu. Gizon izateagatik, txuriak izateagatik, atzerriarrak ez izateagatik edo osasuntsu egoteagatik pribilegio batzuk dauzkagu, eta antzematea oso zaila da. Hasiera batean, gure egunerokotasunean, gizonak izateagatik ditugun pribilegioak zeintzuk diren ez ditugu hain erraz antzematen. Horretarako tailer horretan izena ematera

gonbidatzen dut mundu guztia, asko ikasten da.

Haritz. Pribilegioak ditugu, bai. Esaterako, edozeri buruz ezer jakin gabe iritzia ematekoa. Edo gauzez ez kezkatzeko, beti atzetik egiten duen norbait izan den gulgulako. Kasu askotan guk egiten ez ditugun gauzak, normalean, emakumeek egiten dituzte. Familian, zaintza.

Hasier. Familian, esaterako, zaintza. Gu gizon izateagatik, zaintza guretako aukera bat da, eta txalotzen den aukera bat. Momentu batean aitona eta amona zaintzera joaten baldin bazara, tokatu zaizulako: "begira, zein konprometitua". Gure gizartean emakumezkoek ez diegu aukera hori beraiendako ematen, gauza normala da. Haur bat zaintzearen ardura jarraitzen du izaten gure gizartean. Ematen du jendartea hobera aldatzen ari dela, baina oraindik bide handia dago egiteko.

Gu pribilegiadunak izateak ez gaitu boteretsuagoak egiten, guretako ere zama handia da. Nahiz eta, logikoki, pribilegio horiei eustea beti pribilegiatu horien taktika izan den. Frantziako iraultzan erregeari burua moztu ziotenean, berak ez zuen uste pribilegio bat galtzen ari zenik, baizik eta bere eskubideen eta pribilegioen arteko muga hori antzematen ere ikasi dut:

zer da pribilegio bat eta zer da eskubide bat.

Nola jaso ditugu pribilegio horiek?

Haritz. Bizi garen gizartean bizi garelako, modu batera edo bestera, denok jaso ditugu pribilegioak. Heteronormatibitatea eta beste denak aipatu daitezke.

Hasier. Gizona izateagatik pribilegioak dauzkagula onartzen baldin badugu, jaso ditugula argi dago. Tradiziora joango gara bilatzera. Eta nik uste dut pribilegio horiek pitteka-pitteka galtzen goazela. Ez da gu pribilegio bat galtzen ari garela, baizik eta, agian, pribilegio horiek ez daukatenak eskubideak irabazten ari direla. Eta horrek behartzen

"ATERAZ GERO NORMAREN KONTRAKOA ZARA ETA BADAGO HITZ MAGIKO BAT: 'MARIKOIA!'"

HASIER GONZALEZ

"PRIBILEGIOAK IDENTIFIKATU, JAKIN INGURUKO JENDEARENGAN ZEIN ONDORIO DAUZKAN"

HARITZ GOIKOETXEA

gaitu pribilegio horiek hein batean galtzera. Hala ere, pribilegiadunak garenak jarraituko dugu sinesten horiek ez direla pribilegioak, eskubideak direla. Niretako hor jakiteko lan sakona egiteko dago. "Hau horrela izan da beti". Ez. Agian ez da izan horrela, eta horrela izan bada betiere aldatzeko aukera bada.

Zer egin behar dugu pribilegioekin?

Hasier. Ez da hainbeste pribilegioak galtzearen kontua, baizik eta denek eskubide berdinak irabazteko aukera. Lehendabizi ikusi behar dugu pribilegio batzuek eskubide horiek urratzen dituzten. Esaterako, metal arloko langileek beraien borrokatik eskubide batzuk dituzte. "Beste langile batzuekin alderatuta pribilegiatuak dira". Horiek pribilegioak dira? Edo lortu dituzte beraien eskubideak beste pribilegiatu handiago baten lepotik? Beraien eskubideak borroka baten bitartez eta enpresaburuak eta patronala eta galdu ditu zituen pribilegio horiek. Hemen antzeko bidea egin beharko litzateke: emakumeek emakumeak izateagatik eskubide batzuk urratuta dituzte eta eskubide horiek lortzeko guk gizonak izateagatik dauzkagun pribilegioak murriztu behar ditugu, murriztu edo desegin.

Haritz. Pribilegioak identifikatu, jakin inguruko jendearengan zein ondorio dauzkan eta, modu batean edo bestean, saiatu pribilegio horiek ez erabiltzen eta ez erreproduzitzen. Horrek boterea galtzea esan nahi du. Pribilegioak izateko norbaitek eragozpen bat du. Desoreka bat dago eta ez dago berdintasunik.

Zer egin maitasun erromantikoa-rekin?

Hasier. Egundorretan ez nintzen joan, pasa egin zintzaidan. Haritzek erantzun dezala.

Haritz. Hori ere oso gai tzarra da. Gutxienez, zalantzan jarri behar dugu. Norbaitekin harreman gehiago edo gutxiago izan behar dudala bikotea izateko, bizi eredu bat eraiki behar dugula bikotearen inguruan bakarrik... Nahiz eta gero bikotea izan edo ez izan, edo dena delakoa. Baina gutxienez, zalantzan jarri, zer ezaugarri dituen jakin eta zer suposatzen duen. Ideal bat inposatzen du eta harremanak izateko oso modu jakin bat araututa uzten du, oso hertsia.

HURRENGO ORRIAN JARRAITUKO DU »

« AURREKO ORRIAN HASI DA

Nola lortu harreman sexu-afektibo horizontala?

Haritz. Gizartean zaintzarekin eta kontu horrekin guztiarekin zerikusia dauka ezaugarri guztiak bikoteetan erreproduzitzen dira. Propio ditugun gabeziak identifikatzen jakitea da. Eta saiatzea ez delegatzen bikotean bai zaintzak, bai ardura sexu-afektiboak, sexualak zehazki, edo emozio ardurak. Ez hartu paso egiteko pribilegioa.

Hasier. Argi dago botere harreman edo harremanak asimetrikoak daudela, bai bikoteetan, bai familian, bai lagun artean. Eta askotan hori ere han zen antzemaatea oso interesgarria da.

Zer da zuretako berdintasuna?

Haritz. Generoa ez izatea erabakigarria jarrerak edo gaitasunak epaitzeko garaian.

Hasier. Nire ustez, pertsona guztien arteko berdintasuna lortzea helburu daukagu guztiok; bete-behar bat da. Nahi baldin badugu pertsona guztiak berdintasunean bizitzea edo, behintzat, aukera berdintasuna izatea, bide hori aztertu behar dugula behintzat, eta ibili ere egin beharko dugu noizbait.

Zer aldatu edo kendu behar izan duzu berdintasunagatik?

Hasier. Nire lagunek eta ingurukoek egiten dituzte gauza batzuek oso azkar konturatzen naiz. Nik egiten ditudanean pixka bat zailagoa egiten zait. Esaerak dioen moduan: besteren begian edozein samar ikusi. Baina batzuetan bai hausnartzen duzu: zergatik izan behar naizen hain hiztuna eta elkarrizketak monopolizatu. Nire izaeraren parte bat da, baina horko osagai bat ere badu. Emakumea banintz, izaera desberdina izan nezakeen, agian isilagoa-edo.

Haritz. Ni oso hiztuna naiz. Beste pertsonengana hurbiltzean, gizonok erraztasuna daukagu goitik hurreratzeko. Eta jendearekin harreman horizontalak mantentzen saiatzea. Horren harira, nire inguruko jendearekiko emozio ardura-edo pixka bat hartzen. Nire inguruko jendearen bizitzan pixka bat presentetago egoten. Azkenean komunitatea gara. Ez dira ezta ere bere biziko aldatetarik, baina egunerokotasuneko erabaki txikiak dira. Oso positiboa. Konturatzen naiz orain dela urte batzuk hartutako erabaki kontziente baten ondoren, orain ikusten dut nire inguruko



Altsasuko Gure Etxea eraikinean maskulinitateari buruzko tailerra egin zutenak. UTZITAKOIA

harreman sarea askoz sanoagoa dela.

Berdintasunerako tresnak eta lan-ketak transmititu dituzu inguruan?

Hasier. Aukera dagoenean gaiaz hitz eginda. Futbola gustatzen zait eta koadrilako Athletic zalea naiz. Baina gabarraren egun famatuan gauza askorengatik haserretu nintzen: euskarari egin zioten mesprezuagatik, gizonkeriaren goraiipamen bortitza, gabarran pribilegiadun hamai-ka gizon zihozten, aberatsak, ohore handiak... Koadrilan "pozik egonen zara" esan zidaten, eta ezetz, amorratuta nengoela esan eta arrazoiak eman nizkien. Gauza horiekin konturatzen hasia naiz. Gizonen futbolak gizartean daukan boterea, pizten duen zera horrek ikustarazten dit, esaterako gizartea eraldatzetik oso urrun gaudela, oso urrun. Pentsa dezakegu feminismoak aurrera egiten duela, gero ikusten duzu ezerekin ez dagoela parekotasunik. Nazioarteko ballet sari bat irabazi duen emakumezko bati ez diote horrelako omenaldirik edo harrerarik eginen.

Beste kasu batzuetan, esaterako, komentario bat, baina sartzen zara: "zergatik egin duzu komentario hori?" Pixka bat hausnartzen. Nik zorzea daukat, koadrilan-eta egin izan dituzte horrelako tailerrak eta askotan hitz egin dezakegu gauza hauei

buruz, oinarri batekin, edo aurretiko hausnarketa batzuk eginda.

Zertarako balio izan dizu tailerlean parte hartzeak?

Izen ematea

Bi ikastaro dira. Bat Sakanako Mankomunitatearen Lakuntzako egoitzan izanen da, 10:00etatik 14:00etara maiatzaren 4an, garagarriaren 1ean eta beste hiru saio iraila eta lastailean. Lakuntzan ikastaroa egin nahi duenak berdintasuna@sakanamank.eus e-posta helbidera idatzi dezake, bestela, 948 464 867 telefono zenbakira hots egin dezake.

Bigarren ikastaroa Altsasuko Gure Etxea eraikinean izanen da, 10:00etatik 14:00etara, apirilaren 20an eta 27an, maiatzaren 11n eta 25ean eta garagarriaren 8an. Izena emateko berdintasuna@altsasu.net posta elektronikoko helbidea idatzi edo 948 564 823 telefono zenbakira hots egin daiteke.

Haritz. Ez dut uste ezer zerotik ikastea izan denik. Baina izan da espazio oso baliagarri bat kontzeptu batzuk erreparatzeko, argitzeko eta eztabaidatzeko. Gizonen artean hitz egitea nola izan garen, zer garen eta zer izan nahi dugun.

Hasier. Hausnartzeko, antzemateko gure barnean edo modu oso inkontzientean egiten ditugun gauza batzuk, esaten ditugun gauza batzuk, normaltzat jotzen ditugun beste jokabide edo iritzi batzuk ere zalantzan jartzeko, eta baita ulertzeko ere. Agian pertsona guztiak ez daudela nire egoera berean eta, horretarako ere, interesgarria egin zait. Esaterako, gizontzat jo dut nire burua beti eta ez dut inolako kontraesanik eduki horrekin; hobe edo okerrago, sartzen nintzen gizontzat hartzen ziren parametro horietan: heterosexuala naiz, bikotea daukat, Altsasuko estetika estandarretatik ez naiz ateratzen... Gauza horiez jabetzeko.

Hau irakurtzen duten gizonek zergatik eman beharko lukete izena?

Hasier. Lehendabizi gogoia izan beharko dute. Ez da dogma bat ikasteko, eta oso parte hartzailea da. Iritzi guztiak ongi etorriak ziren beti, zalantzan jarri ahal ziren momentu batzuetan, edo galdetu: "hori zergatik esaten duzu?" Baina tailerretik ez zara beste pertsona bat izaten aterako. Zu izaten jarraituko duzu, jakin-

tsuagoa, zeren zure buruaz ikasi, eta gizarte bezala eta bakoitzak egiten dituen gauzei buruz hausnartuko duzu. Pasa dira hilabete batzuk eta teoria potolo horiek agian joaten dira, baina hausnartzeko puntu hori geratzen da. Niri gertatzen zait orain, telebistan zerbait ikusten dut eta ikuspuntu hori nik lehen ez neukan, baina orain pentsatzeko beste bide bat ematen dit. Bakoitza bere burua ezagutzeko tresna oso garrantzitsu bat izan daiteke. Beste alde batetik, gizartea hobeto ezagutzeko. Eta espero dugu gizartea eraldatzeko tresna ere izan daitekeela. Zeren nik, behintzat, gizartea eraldatzeko gogoia edo desira behintzat badaukat. Denok ikasiko bagenitu gauza hauek gero edukiko genituzke gure iritziak eta agian ez ziren berdinak izango. Baina behintzat oinarri hori badaukazu. Eta esandakoa ez dogma bat, ez da doktrinamendu bat. Ematen dizkizu hausnartzeko tresna politikak.

Haritz. Oso espazio baliagarria da gure jarrerak zalantzan jartzeko. Betidanik jaso ditugun portaera eta molde batzuk jaso ditugu, errespetatzeko. Horiek eztabaidatzeko eta mahai gainean jartzeko. Joaten garenok hitz egiteko borondatea dugu eta oso espazio sanoa sortzen da. Ni esandakoengatik ez nintzen momentu bakar batean ere epaitua sentitu. Elkarrenganako dago.



ASTEKOA

JOSUNE AZPIROZ IMAZ

Bizitza "DESnaturalizatzen"

Esan genezake, denok edo ia denok, negua pozez agurtzen dugula eta udaberria beso zabalik hartzen dugula. Neguko loalditik esnatu eta eguzkiko lehen izpiak gogoz hartzen ditugu. Esnatze hori naturarekin batera egiten dugu eta denoi gustatzen zaigu lehen loreak ikustea, inguruko mendiak nola hasten diren berdetzen ikustea... askotan horraino iristen da naturarekin dugun harremana.

Geroz eta ohikoagoa da natura eta animaliarik gabeko haurtzaroak izatea, landarerik gabeko etxeak. Lau paretan artean geroz eta denbora gehiago pasatzen dute haur eta gazteek... zer pasatzen ari da naturarekin dugun berezko loturarekin?

Ikerketek diotenez, 25 urtetik beherako gazteek eta hurrek urte horietatik gora dituztenek baino denbora erdia pasatzen dute naturan. Azkar esaten da, gero...

Adituak, metafora bat bezala, "natura gabeziaren nahasmenduari" buruz hitz egiten hasi dira.

Horien artean, 'Louv'-en *Basoko azken haurrak* liburuan. Ez da diagnostiko berri bat,

ZER PASATZEN ARI DA NATURAREKIN DUGUN BEREZKO LOTURAREKIN?

baizik eta gizakiok naturarekin harremanetan ez egoteagatik ordaintzen eta ordainduko dugun prezio altua deskribatzeko balio duena.

Naturan geroz eta denbora gutxiago pasatzen

dute hurrek eta are gehiago, pantailen aurrean. Natura, pantaila edo autoko kristaletik ikusten dugu, ez badugu autoan ere pantailarik begiratzen. Orduan ere ez.

Honek guztiak ondorio zuzenak izango ditu gure osasunean. Gaixotasun fisiko eta mentalak izateko arrisku gehiago, arreta mantentzeko zailtasunak, miopia eta abar. Besteetan bezala, azken hausnarketa, mendira joaten zara ala besteak mendira nola joaten diren pantailaren bidez ikusten duzu?

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

OBJEKTIBOTIK



Itsasi Euskaltegia

@ItsasiEuskalteg

Hau jarri dute ikasle batzuek euskaltegian. #munduagaixotudugu



Telegram kanala

Sakanako informazio guztia zure eskura

guaixe



guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436

Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administratzailea:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Maite Iparragirre Astitz

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Gerriratuagatik bi etxe bloke bota dituzte

Nafarroako Gobernuak bota zituen porlandegiaren jabetzako etxebizitzak. Han lurra zabaldu eta zuhaitzak landatuko ditu. Magala egonkortzeko foru administrazioak bi harri lubeta eraiki ditu. Lanak aurreratuta daude eta aurki despedituko dituzte

OLATZAGUTIA

Leire kalearen parean, Iparraldeko Autobiaren (A-1) hegoaldean dagoen lurrari eusten zioten porlanezko zutabeen egiturak behera egin zuen otsailaren 27an. Lur mugimenduak oinarririk gabe utzi zituen Leire kaleko autoendako sei aparkaleku. Haiak berehala bota zituzten. Nafarroako Gobernuari gehiago kosta zitzaion erabakitzea zer egin ondoan zeuden bi eraikinekin.

Olatzagutiko alkate Joseba Vizuete Askargortak azaldu duenez, "etxetako oinarriak agerian gelditu ziren. Kontuan izanik eraikinak autobiaren gainean zeudela, Nafarroako Gobernuak bi eraikinak botatzea erabaki zuen. Premiagatik justifikatu zuen". Eraikinak Cementos Portland Valderrivas enpresarenak ziren. Martxo hasieran hasi ziren horrekin. Teilatuan uralita zegoenez, amiantoa kentzen trebatutako langileak aritu ziren zeregina horretan. Etxebizitza bloke horiek zeuden tokian lurra zabaldu du gobernuak eta lurra eusteko zuhaitzak landatuko dituztela aurreratu du alkateak.

Vizuetek azaldu duenez, "halako lan bat egiteko eraiste proiektu bat egin behar da, eta udalari tasa batzuk ordaindu. Berez, enpresak ordaindu beharko luke,



Botatako bi eraikinak zeuden tokian haien hondakinak besterik ez.

baina, antza, Nafarroako Gobernuaren esku geldituko da". Alkateak gaztigatu duenez, "gobernuarekin harremanetan gaude, jakin nahi dugulako enpresari soilik eraitsitako bi eraikinak desjabetu zizkieten, edo ondoan dituen beste biak ere". Eraitsitako bi eraikinetan bina etxebizitza zeuden. Haietako batean garai batean porlandegiko medikua bizi izan zen. Eraikinen beheko partean merkataritza lokalak zeuden eta han enpresako langileendako ekonomatoa egon zen garai batean.

Lurra egonkortzeko lanak

Gerriratu izan zen tokitik porlanezko pilareak kendu eta harri lubeta bat eraiki dute. Han lurra zabaltzea falta zaie. Zutik gelditu ziren porlanezko zutabeak hobe finkatzeko porlan berezia bota diete. Bestalde, Leire kalearen pareko gerriratzeaz aparte beste txiki bat izan zen porlandegiaren toberaren mendebaldean. Han harri lubeta egiteko lanak egiten ari da orain foru administrazioa. Antza, lanak apirilarekin batera despeditu nahi dituzte.



KONTZEJUA

Etxarrenen hauts ugari

Arakilgo Udalak Etxarrengo sareak eta zoladura berritzeko lanen 1. fasea Construcciones Valeriano Santestebani eman dio 445.241 euroren (BEZik gabe) truke. Lanak otsail akaberan hasi ziren eta bost hilabeteko iraupena izanen dute. Herriaren iparraldean ari dira lanak egiten, eta hara sartu ahal izateko frontoi parean behin behineko bidea zabaldu dute.



Buruhauste bat gutxiago

Arakilgo Udalak Ihabarko Kale Nagusiko 18. zenbakian dagoen eta aurreko egoeran zegoen etxebizitzan esku hartu zuen. Teilatua bota, barrutik hustu, paretak sendotu eta iragazgaiztu, zoruan porlana zabaldu eta barrura eroriko den euri ura biltzeko lanak egin zituen martxoan. Udalak berak Ekaiko Ganadero etxean gauza bera egiteko asmoa du.

bertako
igogailuak | ascensores

BENETAKO OROTARIKO ZERBITZUA
100€-tik/hileko

**IGOGAILUEN
MANTENTZE-LANEN
ESKAITZA
ZORROTZENA**

**2.500 bezerok gugan
dute konfiantza**

943 903 450
bertako.eus

25 URTE UHINAK EUSKARAZ ALAITZEN

euskara kirolean

MAHAI-INGURUA



ospatu gurekin BELEIXE EGUNA


HIZLARIAK



Jagoba Anasate Elustondo
Osasunako entrenatzailea



Yolanda Martil Fernandez
Xotako jokalaria eta kapitaina



Maitane Vilariño Mendinueta
Osasunako jokalaria



Igor Martínez Lumbreras
Saskibaloia leialdekoa eta 2024ko
Conquisako partaidea



Iñaki Berastegi Goikoetxea
kazetariak gidatuta

GOIZEAN IRRATSAIO BEREZIA

BAZKARIA



IZENA EMATEA BEHEKO HELBIDEETAN. AZKEN EGUNA: APIRILAK 26

ONDOREN JOXEK_FARRA


APIRILAK 30,
ASTEARTEA

18:00

IORTIA KULTUR GUNEA
ALTSASU

MAIATZAK 4, ASTEARTEA

ETXARRI ARANATZ



beleixe 25 URTE



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



107.3 FM
beleixe 25 URTE



Makina bat jendek lagunduta egin zuten antolatzaileek manifestazioan parte hartzeko deia. Mahaian, ezkerrean, Mikel Azkargorta Boal.

"Trenbidea bikoiztea defendatzen dugu"

MIKEL AZKARGORTA BOAL SAKANA TRENAREN ALDE PLATAFORMAKO KIDEA Alternatibaren alde eta herritarren hitza errespetatzeko eskatuz, Arabako, Goierriko eta Nafarroako plataformek manifestazioa deitu dute larunbaterako, Altsasun

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Batetik, trenaren benetako garraio-bidea bihurtzeko eta Abiadura Handiko Tren (AHT) egitasmoak baztertzeko eskatzeko eta, bestetik, egungo tren azpiegiturak berrietzeko eta trenen maiztasuna handitzeko eskatzeko, manifestazioa abiatuko da Altsasuko BM supermerkatuko aparkalekutik, larunbatean, 18:00etan.

Zergatik manifestazioa?

Orain da momentua proposatu duten AHTren korridore

bakar horren kontra indarra egiteko, txikizioa hasten baldin bada gelditzea ezinezkoa izango delako. Eta alternatiba on bat daukagulako eta horren defentsa egin nahi dugulako,

"ORAIN DA MOMENTUA PROPOSATU DUTEN AHTREN KORRIDORE BAKAR HORREN KONTRA EGITEKO"

tren sozialaren alde egiteko. Azken finean, egungo trenbidea sarea pixka bat hobetuz erabil lezaketelako aldiriko trenek, merkantziatarako trenek eta AHTek. Alternatibak ez luke ingurumena hainbeste txikituko.

Herriaren hitza errespetatzeko eskatzen duzue manifestazioaren deialdian.

Bai, kaltetutako udalen %70ek babesten dute Iruñea eta Miranda de Ebro arterako egin den

alternatiba hori, gizarte eta ingurumen onurak izanen litzukeelako.

Arabako kontsentsua dago Miranda de Ebro eta Altsasu artean aldiriko tren ibil dadin. Garraio Ministerioa ere aldekoa da. Zer esan nahi du?

Horrekin arrazoia ematen digute. Azken finean, orain arte pitteka-pitteka tren garraioa desegiten joan dira, esaterako, tren geralekuak ixten joan dira. Beharrezkoa jotzen dugu aldiriko tren bat, jendea lotuko duen tren bat martxan egotea, zerbitzu publiko bat izan beharko litzatekeena.

Ministroak ere esan zuen Nafarroako AHTko korridorea lehentasunezkoa dela.

"BEHARREZKOA JOTZEN DUGU ALDIRIKO TREN BAT, JENDEA LOTUKO DUEN TREN BAT"

Hasieran ez zuten sartu, baina, bai, sartu dute plangintzan. Hor daude bi proiektuak; batetik, guk defendatzen dugun alternatiba, gaur egungo trenbidea bikoiztean oinarritzen dena. Eta, bestetik, Araban eta Sakanan egungo trenbidearen paralelo eraikiko luketen beste tren azpiegitura berri bat, eraginaren lituzkeen ondorio larri guztiakin.

Alternatiba bat egin zenuten, gizaritari eta erakundeetara aurkeztu zenieten. Zertan da?

Hiru bide ingeniarietarako egindako proiektu sendoa da. Hobekuntzak ekarriko litzuzke: trenbidea hainbat herritan (Uhartea Arakilen, Altsasun, Agurainen...) lurperatuko litzateke, hiri integrazioa hobetuz; aldiriko trenak, hau da, garraio publikoa ere egongo litzateke; merkantziak... Alternatiba jendartean aurkezteaz aparte, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Parlamentuetan aurkeztu genuen, beraiek azter dezaten eta ea azterketa horretatik erabaki on bat hartzen duten.

Erantzunik jaso duzue?

Hainbat talde politikorekin bilerak egin ditugu, baina oraindik erantzun formalik ez dugu jaso.

AHTko ibilbide proiektua egiteko lur zundaketak egin behar dira. Zertan dira?

Hainbat udaletxetan eskaerak aurkeztu zituzten. Zundaketak egiteko puntuak zein diren badakigu. Baina guk dakigula behintzat, oraindik ez dute bat bera ere martxan jarri. Bakarren batek bere herrian edo inguruan zundaketak egiten ari direla ikusten badu bere udalarekin eta plataformarekin harremanetan jarri dadila. Gure telefono zenbakia 656 111 130 da. Izan ere, zundaketak hasiera puntu bat baitira.

BIKAIN GARAJEA

Mekanika
Elektromekanika
Serie 100
pintura prototipoa
Autokarabana eta
furgoneta saila

948 460 037 Arbizu

FLORES

Utzubar industrialdea Arbizu
948 460 499
Nafarroako berezko txistorra

Toki agintarien trenaren aldeko manifestaziora joateko deia

Babesa adierazi diote alkate guztiek, Altsasukoak salbu, eta Mank-eko eta kontzeju guztietako presidentee

SAKANA

Sakanako toki erakundeetako 30 buruk, hamalau alkatek eta hamasei lehendakari, babesa adierazi diote *Alternatibaren alde, herritarren hitza errespetatu* lelopean Altsasun apirilaren

20an, larunbatean, eginen den manifestaziora. Mobilizazioari babesa emateko arrazoia da: "Abiadura Handiko Trenek (AHT) bakarrik erabiliko luketen trenbide azpiegitura berriak eraikitze proiektua" egin beharrean,



Sakanako Mankomunitatearen batzarra.

Tren sare egokirako elkarlan eskaera

Ibarreko eragileek Nafarroako Gobernuari eskaera egin diote: "Sakanarako benetako trenbide estrategia bat definitzera bideratutako prozesu bat sustatzea. Estrategia hori epe ertainera egingarria eta lurraldearen beharrei erantzun liekena izanik, ezinbestean eskualdeko sozioekonomia eragile guztien adostasuna beharko luke". Eskaera izenpetu dute Aitor Larraza Carrerak (Sakanako Mankomunitateko eta Sakanako Garapen Agentziako buruak), Jose Julian Garziandia Pellejerok (Sakanako Enpresen Elkarteko lehendakaria) eta Arantxa Arregi Alberrok (Cederna-Garalurreko lehendakaria). Guztiak ere Sakana 2027 Estrategia Planaren erakunde sustatzaileak dira.

Hirurek adierazi dutenez, "Sakana landa eskualdea da, baina, aldi berean, oso industrializatuta dago, eta, beraz, gure herriek eta enpresek biziraungo badute, funtsezkoa izango da pertsonak eta salgaiak garraiatzeko bide egokiak izatea". Hirukotearen ustez, "bada garaia etorkizuneko ikuspegiarekin jardun eta lurraldearen ekonomia eta gizarte garapena, iraunkortasuna eta bizi kalitatea bulkatuko dituen tren sare egoki baten aldeko elkarlana abiarazteko".



Aitor Larraza eta Jose Julian Garziandia.

Hainbat erakunde, entitate, enpresa eta gizarte eragile trenaren inguruko konpromisoak hartzen eta proposamenak egiten ari direla ikusita, horiek "positibotzat" jo dituzte, "lurraldea kohesionatzeko elementuak direlako". Hirurek adierazi dutenez, "Nafarroa bidezko moduan garatze aldera, beharrezkoa ikusten dugu planteatutako neurri horiek guztiak gure eskualdean gauzatzea. Izan ere, Sakanan potentzial handiko trenbide azpiegitura bat dugun arren, gure jendarteak eta industria sareak XXI. mendean dituen erronkei eta beharrei erantzuteko honek inbertsioak behar ditu".

Sinatzaileek testuinguruari erreparatu eta nabarmendu dutenez, "klima aldaketaren eta emisioak murrizteko politiken ondorioz, mugikortasuna aldatzen ari da. Heldu den eredu berriaren ezaugarriak antzematen ari dira. Mugikortasun iraunkorra, elektrifikatuagoa, ibilgailu pribatu gutxiago eta garraio publiko gehiago, garraio multimodala, mugikortasun aktiboa..." Horrekin guztiarekin batera, hiri arteko garraioaren kasuan tren bidezko garraioari bulkada ematen ari zaiola nabarmendu dute.

bestelako tren garraio baten aldeko apustua egin dute toki erakundetako 30 buruek: "bada tren publiko eta sozial baterako benetako alternatiba bat, egungo trenbideak modernizatzea eta trenen maiztasuna handitzea proposatzen duena".

Gogorazi dutenez, "joan den martxoan, Sakanako alkate eta hautetsi askok bat egin genuen Trenbidearen, lurraldearen eta herriaren borondatearen aldeko Manifestu Instituzionalarekin, eta atxikimendu horiek Nafarroako Gobernuari eta Gobernuaren Nafarroako ordezkari-tzari eman genizkion".

Adierazpena sinatu duten hamalau alkateek, Mank-eko presidenteak eta hamabost kontzejuetako lehendakariak nabarmendu dutenez, "gaur egungo klima aldaketaren testuinguruan, landa eremuetatik mugikortasun estrategiak planteatu behar ditugu lurralde horietako pertsonen eta produkzio sektoreen beharrei erantzuteko; besteak beste, trenaren erabilera sustatuz".

Adierazpena sinatu duten hamalau alkateek, Mank-eko presidenteak eta hamabost kontzejuetako lehendakariak nabarmendu dutenez, "gaur egungo klima aldaketaren testuinguruan, landa eremuetatik mugikortasun estrategiak planteatu behar ditugu lurralde horietako pertsonen eta produkzio sektoreen beharrei erantzuteko; besteak beste, trenaren erabilera sustatuz".

Lakuntzako metalurgiaren memoria

Kultur etxeak 'Lakuntza, tradizio metalurgikoren historia' proiektuaren lehen zatiaren aurkezpena hartu zuen apirilaren 12an

LAKUNTZA

Lakuntzako Udalak ahozko memorian oinarritutako proiektu bat garatu du aurreko legegaldi akaberatik. Haren bidez, "Lakuntzan dagoen ekintzaitza ekimenari balioa aitortu nahi" dio udalak. Horretarako, Labrit Ondarea enpresarekin lanean ari da, materia gabeko ondarearen bilketan erreferentea dena.

Mugarriak

- 1927an Lakuntzan San Antonio Sarrailagintza instalatzeak mugarri bat ezarri zuen herrian, ordura arte nekazaritza eta abeltzaintzako sektoreei lotutako ekonomiatik bizi baitzen Lakuntza.
- La Cerrajera izenez ezaguna, 30eko hamarkadan 200 pertsona baino gehiago iritsi ziren lanera. Asko emakumeak ziren, batzuk argintza eta sarrailagintza sailtan aritzeko, tradizioz maskulinitzat jotzen ziren lanetan.
- Handik urte gutxira beste galdategi bat sortu zen, Tot Garais, eta hortik atera zen gaur egungo Lacunza Kalor Group marka. Ondoren, 50eko hamarkadan, Barranquesa industrialak ekin zion bere ibilbideari.
- 70eko hamarkadan, Lakuntzako Aceros Moldeados, Barga, Galvanizados Lakunza eta Sakana Coop sortu ziren.
- la mende bat geroago, industria da gutxi gorabehera 1.267 biztanleko herriaren motorra.



Lakuntzako Udalak metalurgiari buruzko ikus-entzunezkoa aurkeztu zuen. UTZITAKOIA

Dagoeneko udalak aurreneko lagina erakutsi du. Hartan, hainbat testigantza bidez, Lakuntzako metalurgia industriaren sorrera eta bilakaera jasotzen da. Historia, hitz batean. Horretarako, hainbat enpresatan aritutako eta lanean ari diren pertsonak eta udalean egondakoak elkarriketatu dituzte.

Oihane Uribetxeberria Garmendiak azaldu duenez, "oinarri antropologikoa duen metodologia sistematizatu baten bidez, ikus-entzunezko elkarriketak edo materia gabeko ondare unitateak jaso ditugu". Alkateak gaineratu duenez, "lehen bilketa fase hau

proiektu zabalago baten barruan dago, eta gure herriaren historiaren dokumental bat barne hartuko du". Hori egiteko, hala ere, "pausoz pauso" joan direla gaztigatu du. Bigarren fasean herriko XX. mendeko historia jasoko lukete.

Bitartean, egindako lana aurkeztu zuen udalak. Hura gauzatzeko, udalak honako enpresen laguntza eta diru ekarpenak izan ditu: Lacunza Kalor Group, Sakana S.Coop., Industrial Barranquesa, Aceros Moldeados de Lacunza, Sagarte S.A., Barga Group eta Galvanizados Lacunza.

Kaixo
Kafetegia - Jateketa

Menua, plater konbinatuak eta ogitarrekook aukeran

García Ximénez 20-22
948 469 124 Altsasu
www.restauranteKaixo.com

kaxeta
LIBURUDENDA

PLASTILINA

Eskaintza ederra eskulanak egiteko eta papertegian

foto.kopia@kaxeta.net
628 542 519 | 948 460 477



Nerea Mazkian, Maialen Pelaez eta June Bengoetxea.

"Gure eskubide aldarriak beti gelditu dira oso apal"

JUNE BENGOETXEA, NEREA MAZKIARAN ETA MAIALEN PELAEZ EHEKO KIDEAK Korrikak 'Harro Herri' leloa zabaldu zuen udaberri hasieran. Euskal Herrian Euskaraz-ek, berriz, Harrotze Astea iragarri du apirilaren 22tik 28ra

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Euskararen aldeko edozein aldarrikapen egin nahi duten sakanarrei Harrotze Astea parte hartzeko deialdia egin diete Euskal Herrian Euskaraz eragileko euskaltzaleko kideek. Ma-

teriala behar izanez gero, haiek emateko prest daude.

Zergatik Euskaldunen Harrotze astea?

June. Hasteko, Korrikako leloa atera zenerako guk, jada, gure leloa pentsatua genuen. Hala ere,

ez da kasualitatea. Berriz ere argi ikusi dugu beharra dagoela Euskal Herrian euskaldun izatea edo euskaraz hitz egiteaz harro gaudela adieraztea. Harro ez harropuzetik, baizik eta harrotasunez bizi behar dugula euskaldunak garela, euskaraz bizitzeko eskubidea dugula. Harro gaudela euskaraz bizitzeaz, eta hori kalera eraman nahi dugu. Lelo horrekin kaleak berreskuratu nahi ditugu.

Zergatik egon behar du kalean euskararen aldeko borroka horrek?

Maialen. Ikusi dugulako euskararen aldeko borroka, euskara presente dagoela hainbat data jakinetan, esaterako: Korrika pasatzen den bitartean edo Euskararen Egunean, abenduan. Urtean zehar borroka hori edo euskaraz bizitzeko nahi hori pixka bat ahazten zaigu. Uste dugu garrantzitsua dela berriz kalera eramatea eta erakustea euskaraz bizi nahi dugula; harrotasunez, Junek esan bezala. **Jendartean euskararekiko tentsio pixka bat galdu da eta dena instituzionalizatuta gelditu da?**

J. Bai, hor dago, pixka bat, gakoa. Askok "erakundetu" gara. Edukazioaren atzean, gure eskubide

aldarrikapenak beti gelditu dira oso apal eta, azkenaldian, guk ere gure eskubideak ere ez ditugu sinesten. Astearen helburua da: gure eskubideak argiak dira, eskubidea dugu euskaraz bizitzeko, eta kalera indar gehiagoz aterako gara esateko: hemen gaude eta egongo gara. EHEk euskalduna den edonori egin dio deialdia, irekia da. Pertsona edo talde horrek euskararen aldeko aldarrikapen bat egiteko deialdia da. Izan daiteke: mediku euskalduna eskatzea, euskararen normalizazioaren borrokan jarraitzea eta abar. Plaza ireki bat bezala planteatu da, bakoitzak bere txikitasunetik egin dezake aldarrikapen bat. Nazio ikuspegiari kohesioa emateko bost aldarrikapen nagusi egonen dira, baina tokian toki aldarrikapen guztiak barne bilduko ditu Harrotze Asteak. Helburua ere bada tokiko borroka horiei indarra ematea eta Harrotze Astea aldarrikapen batzuk abiarazten badira, horiei jarraipena ematea urtean zehar.

Zein dira bost aldarrikapenak?

J. Ofizialtasunaren eta euskararen errepublikaren beharra mahai gainean jarriko dira lehentasunez. Eta besteak aurrerago etorriko dira.

Sakanarako halako aldarrikapenak badituzue?

Nerea. Ideia da Sakanako aste osoko egitarau bat egitea, eta herri bakoitzak bere ekintza nagusia egin dezala. Antolatze hori komunikatzen ibili gara.

J. Saiatu gara herri guztietara iristen eta herri bakoitzak zerbaitean parte hartzea. Gutxienez, hizkuntza paisaia borroka egitea, edo gazteleraz dauden errotuluetan, "euskaraz" pegatinak jartzera animatu dugu jendea. Sakandarrak aste horretan zehar hizkuntza

"EUSKARAZ BIZITZEAZ HARRO GAUDE. LELO HORREKIN KALEAK BERRESKURATU NAHI DITUGU"

"PLAZA IREKI BAT BEZALA PLANTEATU DA ASTEA, BAKOITZAK BERE ALDARRIKAPENA EGIN DEZAKE"

paisaia indar egitera gonbidatzen ditugu.

N. Ziordian talde argazkia eginen dute; Urdaingo gazte asanbladak *Bizkarsoro* filmaren emanaldia prestatu du; Iñigo Aritza ikastolak plazan jolasak antolatu ditu. Arbizuko eskolak ikasleekin aste osoko dinamika eginen du, eta AEK-k ikasleekin ere. Altsasun kultura euskaraz aldarrikapena eginen dugu. Kultura eskaintza handia dago, baina gehiena gaztelaniaz da, eta askotan euskaraz izan zitezkeen emanaldiak gaztelaniaz ematen dira. Orduan gure ekintza nagusiak zehazten dira kultura euskaraz aldarrikapenean. Mosaikoa moduko bat egin nahi dugu, irudikatze zenbat ekintza egiten diren gaztelaniaz eta euskaraz. (Egitaraua 14. orrialdean).

Hizkuntza paisaian eragiteko pegatinak aipatu dituzue. Horiek jendearen eskura jarriko dituzue?

M. Bai, herrietan banaketa egingo dugu.

J. Nahi duenak eska ditzala, bestela edozer gauzak balio dezake gaur egun.

M. Bere garaian EHEk Ezabaketa Astea egiten zuen, eta hortik heldu da hau guztia. Baina buelta eman nahi izan zaio pixka bat, garai berriei egokitzeko. Ez da bakarrik ezabaketa astea, hori ere ekintza garrantzitsu bat izango da hori astearen barruan, hizkuntza paisaia arrotza ezabatzea. Baina zabaldu dugu edonork parte hartu dezakela bere aldarrikapenarekin, bere herrian pentsatzen duena aldarrikatuz, astea probestuz. Lehen esandakoaren haritik, Harrotze Astea aurkeztu dugu. Baina horrek ez du esan nahi aste horretan bakarrik eraman behar dugula borroka hau kalera, baizik indarra hartzea: herrian zer behar dugun edo aldarrikatu nahi dugun identifikatu, goazen borroka horiek aste horretan hastera eta, aste hori abiapuntuz hartuta, urte guztian aldarri hori lantzea. Harrotasuna ez dadila aste bateko kontua izan.

Eremu digitalean zer?

N. Euskararen aldeko edozein aldarrikapen egin edo edozein ekintza eginda, sare sozialetan zerbait elkarbanatu nahi badu, *#EuskarazTaHarro* traola erabiltzea aste horretan. Gure sare sozialetan hori mugitzen eta aldarrikatzen saiatuko gara. Jendeak lagun gaitzala gure aldarrikapen horiek saretzen.

DUELA 25 URTE...




Meningitisaren kontrako txertaketa

Bi hilabetetan haur eta nerabeetan lau meningitis kasu antzeman zituzten. Osasunbidearen arabera, biztanle gutxiko inguru batean horrenbeste meningitis kasu izateak justifikatu zuen txertaketa kanpaina. Altsasu, Olatzagutia eta Ziordiko 1.600 bat umeri eta gazteri jarri zieten txertoa, jaioberrietatik Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleak arte. Kanpainak 1.200.000 pezetako (7.212,5 euro) aurrekontua izan zuen.



PROIEKTUETAN OINARRITUTAKO IKASKUNTZA ETA ZERBITZU-IKASKUNTZA METODOLOGIAN LAN EGITEN DUGU

**Izena emateko epea erdi maila eta goi mailetan: apirilaren 29tik maiatzaren 10era arte.
Izena emateko epea oinarrizko mailan: maiatzaren 13tik 17ra.**



Goi maila (DUAL Intentsiboa)
Automatizazioa eta Robotika Industrialia (gaztelerez)



Goi maila (DUAL Intentsiboa)
Fabrikazio Mekanikoko Produktioaren Programazioa (gaztelerez)



Goi maila
Mekatronika industrialia (gaztelerez)



Goi maila
Haur hezkuntza (euskaraz)




Erdi maila
Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonen Laguntzea (euskaraz)



Erdi maila (DUAL Intentsiboa)
Soldadura eta Galdaragintza (gaztelerez)



Erdi maila
Sistema Mikroinformatikoak eta Sareak (euskaraz)



Erdi maila
Mantenu Elektromekanikoa (gaztelerez)



Erdi maila
Eskalada



Erdi maila
Mendi ertaina



LH Berezia
Merkataritzako Zerbitzu Orokorretako laguntzailea



Onarrizko maila
Merkatal Zerbitzuak

ATE IREKIEKIN IARDUNALDIA

APIRILAK 23, asteartea

09:00etatik 14:00etara: Ate Irekiak
11:30etatik 14:00etara: ikasleek egindako proiektu eta lanen azalpen-erronda
17:00etatik 19:00etara: ikastetxeko ziklo eskaintzaren azalpena eta bisita gidatua

APIRILAK 27, larunbata

09:30etatik 13:30etara: Ate Irekiak
11:30etatik 13:30etara: ikastetxeko ziklo eskaintzaren aurkezpena eta bisita gidatua



Maiatzaren Leheneko LABen manifestazioa. ARTXIBOA

Zabaltzen segi nahi du LABek

Mezu hori zabaldu du bere 50. urteurrenerako aukeratutako leloan eta dokumentalean. Ikus-entzunezkoa Altsasun ikusteko aukera izanen da gaur. Mende erdiko ospakizunak Iruñean egingen ditu sindikatu abertzaleak Maiatzaren Lehenean

Eneida Carreño Mundiñano ALTSASU Sindikatuko Sakanako arduradun Gaizka Uhartek Baldak esana: "Irurtzango jendeak, Inasakoak, bere garaian asanbladak mendian edo inguruko ez dakit zein elizatan egiten zituzten". Sindikatu bertikala aukera bakarra zen garaian sortu zen LAB sindikatu, 1974an. Aurten 50 urte bete dituela eta, *Eskuz esku. LAB zabaltzen* dokumentala egin eta ematen ari dira. Altsasuko Iortia kultur gunean gaur, 19:00etan, ikusgai izanen da. Ondoren hizketaldia izanen da. Urteurren ospakizuna Maiatzaren Lehenean borobilduko dute, Iruñean.

Dokumentalak ordu bateko iraupena du, "gehiago ematen du nola sindikatu zabaldu den, nondik abiatu zen baino. Ez da buru belarri dagoen delegatu edo sindikalista batek ikusteko, edonork ikusidetzakeen zerbait da eta, gainera,

nahiko arin doa. Beraz, jendea ikustera animatzera animatzen dugu. Ez du LABeko kidea izan behar ikusteko". Sindikatuaren sortzaileez aparte, ikus-entzunezkoan "hain sonatuak izan ez diren gauzetan protagonistak izandakoak. Testigantza pila dira".

Uhartek esan duenez, "50 urte ez dira beti betetzen, kosta egiten da eta sindikatu bati ere. Ez da erraza sindikatu antolatzea eta are gutxiago LABek izan duen hedapena izate izatea. Gaur egun ezagutzen ditugun sindikatu konfederaletan gazteena da". Denborarekin aldatu, errealtateari egokitu eta hainbat lan esparru berritan borrokatzeak ekarri du LABen gaur egungo hedapena Uhartek azaldu duenez.

Feminismoa

LABek, estreinako, bere feminismo plana duela 30 urte jarri

zuen martxan. Han jaso zenez zuzendaritza esparruak berdintasunean oinarritu behar zirela. "Hori ez zen nahikoa, baina sindikatu izugarriko eraldaketa kokatutako sindikatuaren, gehienak gizonetakoak ziren, enpresa handietakoak. Duela bi kongresu sindikatu feminista baten aldeko apustua egingenuen. Gure eskola propioa dugu eta sindikatuko gizonak gure ariketak egin eta prestakuntza jasotzen dugu bai liberatuek bai delegatuek".

Azkeneko greba feminista gogora ekarri du, eta lantzen ari den akordio soziala. Feminizatutako sektoreetara nola iritsi. Uhartek azaldu duenez, etxeko zaintzan lan egiten duten emakumezkoek "gizarte segurantzako erregimen berezi batean daude, ez dute lan hitzarmenik, langileen estatutua aplikatzen

zaie eta ez dute antolatzeke ezta ordezkaritza sindikala izateko eskubiderik". Jakinarazi duenez, "Bilbon lortu dugu etxeko zaintzan dabilen jendearen lehen sail sindikala. Hori lortuta, badirudi patronalen bat hurbildu dela eta lortu dugula, behintzat, hitz egiten hastea lehenengo lan hitzarmen batez". Nabarmendu du langile horiek ez dutela patronalik, norbanakoendako lan egiten dutela eta "jende hori, normalean, ez da patronal batean antolatzen. Oso zaila da jende honek beren eskubideak eta tresnak izatea. Eta hori antolatzea oso zaila da".

Azaldu duenez, emakumezko zainzaileei zer lan baldintza jarri galdezka joan izan zaizkie sindikatuta. "Guk ez daukagu eskaintza hori horretan lan egin ez dugulako. Orain hasi gara. Bilboko esperientzia polita da. Ea posible den beste herrialdeetan ere sektore horietako pertsonak antolatzea, lan hitzarmen propioa izateko. Eta jendeare ere esateko langile horiek ere beraien lan baldintzak dituztela. Gaur egun ez dute bizitza eta lan duinik".

Gaztigatu duenez, "sindikatu ere halako borroketan sartu da, normalean, irabazteko gutxi duzun arren. Ez da enpresa bat hamahiru delegatu dituen, eta afiliatuek ere oso gutxi kobratzen dute. Tradizionalki inor ez da sartu pertsona horiek defendatzeraz eta antolatzeraz. Horretan saiatzen ari gara Bilbon lortu da, baina ez dakit beste lekuetan gai izango garen".

Harremanak eta erronkak

Horretaz galdetuta, Uhartek esan duenez, "orain dagoen harremana da nahiko irekia. Momentu honetan ez dago akordio bat, esaterako, Euskal Herriko sindikatu nagusien artean, batez ere prozesu politikoari begira. Baina gaur daukagun ordezkaritzak hainbat aukera sektoretan eta enpresetan hainbat sindikaturekin batera aritzeko". Azaldu duenez, "sektore bakoitzean edozein sindikaturekin adostasuna baldin badugu puntu batzuen inguruan, haiekin lan egiten dugu. Ez dugu halako betorik. Oso adibide garbia izan da Osasunbidean UGTK eta LABek lortutako akordioa".

Gaineratu duenez, "tamalez, ez dago akordio bat burujabetzari edo prozesu politikoari begira, Euskal Herriko sindikalgintza

aitzindaria izateko eta langileak horretara mugitzeko".

Erronkez galdetuta, Sakanako LABeko buruak adierazi duenez, "gure bideari segituz, burujabetza prozesuari ekarpen handiagoa egin nahiko genioke. Bestetik, langileen alternatiba sendo bat artikulatzea. Nola ekarri langile guztiak borroka batetara. Horretarako, gako da gaur egun antolatu edo borrokatu ezin duten sektoreak gurera ekartzea eta langilearen parte izatera seti daitezela. Gure erronka subjektu hori sortzea eta beste batzuekin batera burujabetzaren alde eta eskubide sozialen bidean aurrera egitea".

Borroken memoria

Uhartek sindikatuaren 2008an sartu zen, "eskubideak irabazteko, hauteskunde sindikal garai batean ere jende antolatzeke". Finantza arloak eragindako krisia etorri zen "eta neure burua enpleguaren defentsan ikusi nuen, Sakanan desindustrializazio prozesu handi bat izan zelako". Gogoan dituen sindikatuaren borroka artean hiru aipatu ditu Uhartek. Batetik, Inasako borroka izan zen garrantzitsuenetako bat. "Langile batzuk aktibitatearekin jarraitu nahi zuten, inbertitzaileak zituzten. Sistema muntatua zegoen zure proiektua aurrera atera ez zenezan. Han jendeak sinetsi egin zuen eta azkeneko ondoraino borrokatu genuen. Galdu egin zen, baina borroka txukuna izan zen".

Bestetik, Vasconavarra enpresan "langile prekario guztiekin egin genuen borroka" ere gogoan izan du. "Egia da ez genuela nahi genuen lan hitzarmena lortu, baina, behintzat, lortu genuen ordura arte oso zaila eta jazarpen bizi zegoen enpresa batean jendea antolatzea". Eta, azkenik, Huertas de Peraltakoa. "Erriberan sekulako borroka egin eta, gainera, irabaztea. Ondorioz, beste esplotazio batzuetan lan baldintzak hobetu ziren, beldur zutelako LABek hauteskundeak egin eta egoera berdina izango zuten. Albo ondorio polita izan zuen".

"GAKO DA GAUR EGUN ANTOLATU EDO BORROKATU EZIN DUTEN SEKTOREAK GURERA EKARTZEA"

Kontzeju etxea berrituta

Izurdiagako Kontzejuak Construcciones Arbelaze SM enpresari eman zizkion bere egoitza zaharberitzeko lanak. Kontzeju etxeko beheko solairuan porlana zabaldu eta haren gainean baldosak jarri dute. Gainera, pipiaki jotako zutabeak ordezkatu dituzte. Lanen truke kontzejuak 45.383,08 euro (BEZ barne) ordaindu ditu. Orain margotzen ari dira.



ARTXIBOA

Oinezkoak plazan nagusi

Martxoarekin batera despeditu ziren Etxarri Aranazko plazan egindako lanak. Lau tokitan zorua oinezkoendako irisgarriagoa izateko lanak egin zituzten Xego17 SM eta Canalizaciones JFG SM enpresek. Gainera, liburutegirako sarbide irisgarri bihurtu dute. Lanen truke Etxarri Aranazko Udalak 91.091,95 euro (BEZ barne) ordaindu ditu.



Aparkalekua konponduta

Altsasuko Zelandiko ibilgailuen aparkalekuko zorua hondatuta zegoen, zuloak zeuden eta putzuak sortzen ziren, batzuk handiak. Udalak hura konpondu zuen martxoaren 21ean. Zorua berdintzeko lanak egin ziren egun horretan. Zelandikoa Altsasun autoendako dauden lau aparkaleku publikoetako bat da. 2014an egin zen eta 47 autorendako tokia du.



Lizarragako taberna-jatetxeak zabalik segiko du

Orain arteko jabeek kudeatuko dute kontzejuarena den ostalaritza azpiegitura

LIZARRAGA

Bost urteko epeko kontzesioa despedituta, eta legeari jarraituz, Lizarragako Kontzejuak Bargazpi Etxea taberna-jatetxearen kudeaketa esleitzeko deialdia egin zuen. Kontzejuak bi eskain-

tza jaso zituen eta, aztertu ondoren, Bargazpi gaur egun kudeatzen dutenen alde egin du. Lizarragako Kontzejutik azaldu dutenez, aldeek kontratua sinatu ondoren, sei hilabeteko probaldia izanen dute kudeatzaileek. Epe

hori gaituta, kudeatzaileen-dako kontratua hiru urterako izanen da. Denbora hori pasata, beste bi luzatzeko aukera izanen dute.

Lizarragako Kontzejutik jakinarazi dutenez, ostalaritza zerbitzuaren ordutegian aldaketak izanen dira. Honako ordutegia izanen du Bargazpi Etxea taberna-jatetxeak: astelehenetik ostegunera itxita, ostiraletan 17:00etatik 24:00etara, larunbatetan 09:00etatik 24:00etara eta igandeetan 09:00etatik 21:00etara.

FESTAK

IHABAR

GAZTA BERRIAREN IREKIERA EGUNA ETA UDABERRIARI ONGI ETORRIA

APIRILAK 21 Igandea

10:30 Postre lehiaketaren postreak jasotzea.

11:00 III. Postre lehiaketa.

11:30 Gazta berriaren mozketaren aurrekua, otamena eta Ihabarko fanfarrearekin musika.

12:00 Sakanako XXIV. Herri

Kirol eguna, Sakanako

Mankomunitateak antolatuta

Arakilgo Udalaren eta Ihabarko

kontzejuaren laguntzarekin.

14:00 Haurren herri bazkaria.

14:30 Helduen herri bazkaria.

16:00 III. Postre lehiaketako sari banaketa.

Euskal kantak Ihabarko fanfarrearekin.

16:30 Mus txapelketa.

17:00 Haurren herri kirolak.

18:00 Txokolate jana.

BAKAIKU

UDABERRIKO FESTAK

APIRILAK 26 Ostirala

18:00 Frontenis txapelketaren finala.

19:00 Festen hasierako

etxajua.

20:00 Patata tortilla txapelketa.

23:00 Kontzertuak: Beietz! eta

Bihurri taldeak.

Solasaldiak
Lantegiak
Hitzaldiak

2024
LITERATURA
-geraldiak

Solasaldia
IZENBURUA
ITZULERAK
MIREN AGUR MEABE

TOKIA
UHARTE ARAKILGO UDALETXEA

EGUNA
Apirilak 26

ORDUA
19:00

Antolatzailea: **Mank**
Laguntzailea: Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI
ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO

LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 /
kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 19

ALTSASU Gazte agenda

Muralismo parte hartzailea tailerra
Ottstuff-ekin.

17:30etik 20:30era, Intxostiapunta
gazte gunean.

ETXARRI ARANATZ Tailerra

Irakurkide txakurrekin irakurtzeko
tailerra, Biak Bat elkartearekin.

18:00etan, liburutegian.

ALTSASU Kontzertua

Pr0t0c0lectiv0ren kontzertua:

Sistema de partituras expositivas
para prototipos resonantes, Uholdeak
Uharteko Arte Garaikideko Zentroaren
programaren barruan.

18:30ean, lortia kultur gunean.

IRURTZUN Antzerkia

Ezkaba antzezlaren emanaldia, Iluna
Producciones konpainiaren eskutik:
Ezkabako espexeko bizitza nolakoa
izan zen, eta bertako presoen, haien
familien eta elkartasun sareen bizitza
eta ihesaldia eszenaratzan ditu.
Sendaberrri paisaia eszeniko berriak
programaren barruan. Gaztelaniaz.
Sarrerak: 6 euro.

19:00etan, kultur etxean.

ETXARRI ARANATZ Bakarleriak

Bakarlayek saioa: Aiora Enparantza,
Beñat Iturbe, Asier K, Joxe Aldasoro
eta Amaia Ruiz de Galarreta.

Gaztetxean.

19:00 Pintxopotea.

22:00 Bakarleriak.

ALTSASU Film dokumentala eta solasaldia.

Eskuz esku. LAB zabaltzen film
dokumentalaren emanaldia eta
solasaldia, LAB sindikatuaren 50.
urteurrenean.

18:00etan, lortia kultur gunean.

LARUNBATA 20

LAKUNTZA Mendi irteera

Lakuntzako txokoak ezagutzeko
mendi irteera familian, Lakuntzako
Udalak, Zabalartek eta Lakuntzako
Pertza elkarteak antolatuta.
Hamaiketako Zabalarteren eskutik.

09:30ean, plazan.

ETXARRI ARANATZ Ikastaroa

Homologatutako bideak nola
mantendu trebakuntza teorikoa eta
praktikoa, Nafarroako Mendi Kirol eta
Eskalada Federazioaren eskutik.

09:00etatik 14:00etara, kultur etxean.

ALTSASU Gimnasia erritmikoa

Nafarroako Banakako Gimnasia
Erritmikoko Nafar Kirol Jokoetako
bigarren fasea: bigarren, hirugarren,
laugarren eta bosgarren mailak. 136
gimnasta, tartea Iskiza Sakanakoak.
Nafarroako Gimnasia Federazioak eta
Iskiza Sakanak antolatuta.

09:00etan, Zelandi kiroldegian.

ALTSASU Gazte agenda

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIAN

Matusalén gaurkotasunezko
filmaren emanaldia.

Igandea 21: 19:30
Astelehena 22: 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO TXIKIAN

Radical gaurkotasunezko
filmaren emanaldia.

Osteguna 25: 19:00

Muralismo parte hartzailea tailerra
Ottstuff-ekin.

17:30etik 20:30era, Intxostiapunta
gazte gunean.

LAKUNTZA Kontzertua

Victor Mesanzaren kontzertua.

18:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Manifestazioa.

Alternatibaren alde, herritarron hitza
errespetatu. AHTaren aurrean
alternatiba, txikizioa gelditu
manifestazioa.

18:00etan, suhiltzaileen paretik
(supermerkatuko aparkalekutik).

IGANDEA 21

ALTSASU Txirrindularitza irteera

Barranka Txirrindularitza Taldearen
irteera: Otsaportillora 50 kilometroko
ibilbidea.

08:30ean, Zumalakarregi plazan.

ALTSASU Gazte agenda

Muralismo parte hartzailea tailerra
Ottstuff-ekin.

17:30etik 20:30era, Intxostiapunta
gazte gunean.

IRURTZUN Hitzaldia

Krisi humanitarioa Palestinan
hitzaldia, Iraxok antolatuta.

18:00etan, kultur etxean.

ASTELEHENA 22

ALTSASU Elkarretaratzea.

Sakanako Pentsiodunen
Mugimenduaren Pentsio duinen
aldeko kontzentrazioa.

12:00etan, Zumalakarregi plazan.




ALTSASU Uholdeak Uharteko
Arte Garaikideko Zentroaren
programaren erakusketa: *bat
bitan*.

Apirilaren 28ra arte. Iortia kultur
guneko erakusketa aretoan.

IRURTZUN Leitzako Amazabal
institutuko DBH 4. mailako
ikasleen arkatzezko marrazkien
erakusketa.

Apirilaren 28ra arte. Pikuxarren.



ZIORDIA Collage Expo Sara
erakusketa.

Apirilaren 15etik 30ra.
Liburutegian.



OLATZAGUTIA Ipuin kontalaria.

Jaione Urtasun ipuin kontalariaren
Hemengo ipuinak, hangoak eta
urrutikoak ipuin kontaketa.

17:00etan, liburutegian.

ETXARRI ARANATZ Aurkezpen solasaldia.

Literatura Geraldjak: Oso latza izan da
liburuaren aurkezpen solasaldia
Xabier Mendiguren idazlearekin eta
Jon Arratibel Xafan-ekin.

19:00etan, liburutegian.

ASTEARTEA 23

ALTSASU Solasaldia.

Liburuaren astea: literatura samurra
eta kabroia Patxi Irurzun idazlearen
hitzaldia. Altsasuko liburutegiak
antolatuta, Liburuaren Egunaren
harira.

19:00etan, lortia kultur guneko
hitzaldi aretoan.

ASTEAZKENA 24

ALTSASU Tailerra.

Liburuaren astea: Papera egiten dugu
tailerra Sakanako Mankomunitateko
Hondakin zerbitzuetako hezitzaileekin.
Txandaka, lau talde, hamabi haur
talde bakoitzean. Izena eman:
liburutegian. Altsasuko Liburutegiak
Liburuaren Egunaren harira antolatuta.

17:30etik 19:30era, lortia kultur
gunean.

ALTSASU Kontzertua.

Ibai Gogortzaren kontzertua, Uholdeak
programaren barruan.

18:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Hitzaldia.

Goi tentsioko linearik ez. Herri bizien
alde solasaldia.

18:30ean, lortia kultur gunean.

OSTEGUNA 25

ALTSASU Txotxongilo ikuskizuna.

Liburuaren astea: Erreka Mari azken
lamia txotxongilo ikuskizuna Enkar
Genuaren eskutik. Haur Hezkuntzako
haurrendako.

18:00etan, lortia kultur guneko
erabilera anitzeko aretoan.

ALTSASU Mosaikoa eta musika.

Harrotze astea: Mosaiko erraldoia eta
Ekhiñe eta Irati bakarlarrien emanaldia,
Euskal Herrian Euskarazek antolatuta.

18:30ean, lortia zabalgunean.

URDIAN Film emanaldia.

Harrotze astea: Bizkarsoro filmaren
emanaldia, Euskal Herrian Euskarazek
antolatuta.

19:00etan, udaletxearen
auzoan.

ZORION AGURRAK




Oihane Doral Zelaia
Zorionak pittina! Egun
ederra pasa. Zure aitona
amonak. Muxuak.



Er^viti aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es



LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

Etxe zaharren
berriztatze eta birgaitzea

OSTIRALA 26

ALTSASU Hitzaldia.

Heroina 1980ko eta 1990ko hamarkadetan Susi Arteta eta losu Imazen hitzaldia, Altsasu Memoria elkarteak antolatuta. Gonbidapenak agortuta. **18:00etan, Iortia kultur gunean.**

ALTSASU Dantza ikuskizuna

Dantzabideak Oholtzara salto dantza erresidentziaren Etxarri Aranazko Andra Mari Ikastolako, Altsasu BHIko eta Altsasuko Korazonistak eta Iñigo Aritza ikastolako ikasleen ikuskizuna eta Dantzas konpainiaren Youth dantza ikuskizuna. **18:00etan, Zumalakarregi plazan.**

UHARTE ARAKIL Solasaldia.

Literatura Geraldia: Miren Agur Meabe idazlearen Itzulerak liburua inguruko solasaldia. **19:00etan, udaletxean.**

ZIORDIA Argazkia.

Harrotze astea: argazki erraldoia, Euskal Herrian Euskarazek antolatuta. **19:00etan, gaztetxearen aurrean.**



IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK

SALGAI

Pisua bajearekin salgai: Etxarri Aranazko Santakitz kalean. Interestatuek deitu 669 156 117 telefonora.

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZA

Mank-ek ingurumen hezitzaile lan poltsa osatzeko deialdia zabaldu du: Hautaprobentz bidez osatuko da Hondakin zerbitzuan aritzeko lan poltsa. Betebeharrak: C1 mailako euskara titulua, B motako gidabaimena eta Enplegu bulegoan izena emanda egotea, enplegu eskatzaile bezala edo enplegua hobetzeko. Apirilaren 24eko 14:00ak baino lehen aurkeztu behar da eskabidea. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus webgunean.

Nasuvinsak Energia trantsizioaren arloan lan eginen duen teknikari bila Sakanan: Autokon-

tsumo proiektuak eta energia komunitateak sustatzen dituztenei laguntza eta aholkuak ematen dizkie, ibili beharreko bide hori errazagoa izan dadin eta horiek eratzten eta inplementatzen jarrai dezaten. Energia subotasuna indartzeko toki erakundeak, herritarrei eta enpresei laguntzea, alegia. Deialdiari buruzko informazio gehiago vike-na.es webgunean

OHARRAK

Bakaikuko Udaberriko festetako bazkarirako ticketak salgai: Herriko dendan, Koxkon eta elkarteetan daude txartelak salgai apirilaren 22ra arte. Heilduek 20 euro eta haurrek 10 euro ordaindu beharko dituzte.

Arakildik Lizarrara irteera kulturala antolatuta da: Maiatzaren 4ean izanen da, jardueran parte hartzeko Arakildik udaletxean izena eman behar da apirilaren 29a baino lehen, 25 euro ordainduz.

Odol emateak Irurtzunen: Apirilaren 24ean 16:45tik 21:00etara Osasun etxean.

Muga Zerok autobusa antolatu nahi du Herri Urratsera joateko: Nafarroa gunean kontzertua eskainiko dute eta bertara joateko autobusa antolatzen ari dira. Irteera goizeko 08:00etan eta itzulera 19:00etan izango da. Ticket-ak 15 euro balio du, Sorginak Tabernan edo taldekideei komentatuz eros daitezke, maiatzaren 4ra arte.

Sakanako Mintzakide taldeak: Altsasun astelehenean 10:00etan liburategian, ostegunetan 20:00etan Lezea tabernan eta ostiralean 09:00etan Kaixo tabernan, Ziordian ostiralean, 17:00etan liburategian, Etxarri Aranazten ostiralean 19:00etan Xapatero tabernan, Arbizun astearteetan 16:30ean kirodegiko tabernan, Lankuntzan asteazkenetan 18:15ean jubilatutako elkarteetan 18:30ean Irabxo tabernan, ostegunetan 9:00etan Pikuxarren eta ostiralean 19:00etan Pikuxarren ere. Parte hartzeko deitu 600 482 024 telefonora.

iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburak.eus

OROIGARRIA

Jose Mari Mercero Lizarraga

V. urteurrena
(2019ko apirilaren 25ean hil zen)

Alaitasunaren iturritik edan genuen elkarrekin oroimenean izango zara zu beti gurekin

Etxekoak

Unanu

OROIGARRIA



Maria Luisa Zelaia

III. urteurrena

Beti nire bihotzean

Jesus

OROIGARRIA



Vicente Zelaia Agirrebengoa

(VI. urteurrena, urtarrilaren 29an)



Maria Luisa Zelaia Mendia

(III. urteurrena, apirilaren 19an)

Bizi naizen artean nirekin eramango zaituztet

Conchi

JAIOTZAK

- **Adem Hellal Mekerri**, martxoaren 4an Uharre Arakilen
- **Aratz Artola Barrena**, apirilaren 11n Etxarri Aranatz
- **Asiya Mejdoubi**, apirilaren 12an Altsasun

EZKONTZAK

- **Iban Mendinueta Gabirondo eta Lide Agirre Lopez**, apirilaren 8an Arbizun

HERIOTZAK

- **Jose Reparaz Maiza**, apirilaren 14an Arbizun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskela@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70€ prezio hauek BEZA bame dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70
 📧 @Grupolrache
 📺 Grupolrache
 🌐 www.tanatoriosirache.es

FUTBOLA

EMAKUME PREFERENTEA

5. JARDUNALDIKO EMAITZA

Altsasu - Idoioa 1-1

SAILKAPENA

EMAKUMEEN PREFERENTEA . 2. FASEA

1 Gares 10

3 Altsasu 8

HURRENGO JARDUNALDIA

APIRILAK 20, LARUNBATA

15:30 Berriozar - Altsasu (Berriozar)

Altsasu, azkenaren kontra

Puntu banaketaren ondoren, Altsasuk azkena den Berriozar izango du aurkari.

GIZON PREFERENTEA

27. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Aibares - Altsasu 2-1

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1 Burlades B 54

13 Altsasu 35

HURRENGO JARDUNALDIA

APIRILAK 21, IGANDEA

16:30 Altsasu - Burlades B (Dantzaleku)

Altsasuk liderra hartuko du

Altsasuk ez zuen Oibartik punturik ekarri, eta sailkapenean postu bat behera egin du. Igandean Altsasuk lidergoa jokoan duen Burlades taldea hartuko du, zaila aurreikusten den lehian.

Zaldua, bide onean

Elomendiko Txapelketan, Zaldua Talleres Goñik 0-3 irabazi zion Apolori. Arakildarrek bosgarren jarraitzen dute, eta asteburuan Bidezarra dute aurkari.

GIZON ERREGIONALA

25. JARDUNALDIKO EMAITZA

Lagun Artea - Etxarri Aranatz 1-0

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA

1 Mutilbera C 52

2 Etxarri Aranatz 51

8 Lagun Artea 36

HURRENGO JARDUNALDIA

APIRILAK 20, LARUNBATA

17:00 Etxarri A. - Arga ibaia (San Donato)

APIRILAK 21, IGANDEA

17:00 San Jorge - Lagun A. (Sanduzelai)

Derbiko puntuak, Lakuntzan

Lakuntzako Zelai Berrik Lagun Artearen eta Etxarri Aranatzaren arteko derbia hartu zuen larunbatean. Asko zegoen jokoan, eta bi taldeek lehia estua eskaini zuten. 15. minutuan Iker Anduezak Etxarriren atea zulatu zuen, eta markagailua ez zen gehiago mugitu. Asteburuan, Etxarri Arga du aurkari, eta Lagunek San Jorge.

Labritetik bizirik atera

PILOTA Buruz Burukoko lehen jardunaldian Artolaren kontra 22-10 galdu ondoren, aukera bakarra du Joseba Ezkurdiak: larunbatean Javi Zabalaren kontra Labriten jokatu duen partida irabaztea. Biak galtzetik datoz, eta, hortaz, hila ala biziko partida dute. Ezkurdia ez zen Artolaren kontra fin ibili, eta bere bertsiorik onena berreskuratu nahi du Labriten.



ASPEPELOTA.EUS

Mendeurrenako ospakizunetarako prest

MENDIA Federacion Vasco Navarra de Alpinismok (FVNA) 100 urte beteko ditu aurten, eta apirilaren 28an Euskal Herriko 100 mendi igoko dira mendeurrena ospatzeko. Klub sakandarrek Dulantz, Beriain eta Erga aukeratu dituzte

Maider Betelu Ganboa SAKANA

Aurten Federacion Vasco Navarra de Alpinismok (FVNA) 100 urte beteko ditu. Mendeurrena ospatzeko Nafarroako Mendi eta Eskalada Federazioak, Euskadiko Mendi Federazioarekin batera, egitarau zabala prestatu du 100 Betidanik Betik lelopean. Tartean, apirilaren 28an Euskal Herriko 100 mendi igoko dira, 100 urteak ospatzeko. Sakanako klubei dagokienez, Larrañetak Beriainera antolatuta du irteera, Iratxok Ergara, eta Altsasuk Mendigoizaleak Dulantzera, Urbanan.

Altsasuk Mendigoizaleak 8:00etan bilduko dira egoitzan, eta 9:00etan abiatuko dute martxa, Urbanako Bardoitzako aterpetik. 11:00etan helduko dira Dulantzera, eta 12:00etan, eskainiko duten hamabietakoarekin batera, urteurrenako suziria jaurtiko dute.

Irurtzango Iratxokoek asteburu potoloa dute, bezperan Saka-



Sakanako Mendizaleek igandean Gouiuriko ur-jauzia ezagutu zuten. UTZITAKOIA

nako Ibilaldia delako, baina apirilaren 28an Ergan bildu eta eguerdian FVNA zoriontzeko asmoa dute. Baita Etxarri Aranzko Larrañetakoek ere. 8:30ean Larrañeta elkartearen bilduko dira, Beriainera jotzeko.

Elgeta, bilgune

Maiatzaren 18an ekitaldi instituzionala egingo da Elgetan, egun horretan sortu baitzen ofizialki FVNA. Euskal Herriko mendizale guztiak ekitaldira gonbidatuta daude.

Maider Betelu Ganboa IRURTZUN

Apirileko azken larunbatean, apirilaren 27an, Sakanako Ibilaldia 33. edizioa abian jarriko da. "Irurtzunen mendi martxa bat baino askoz ere gehiago, ekitaldi handia" dena antolatzen burubelarri ari da lanean Iratxo elkarteak. Apirilaren 12an argibide guztiak eman zituzten Iratxoko Manolo Morenok eta Doris Vicentek, alboan Iratxo mendi taldeko Aintzane Sarasola, Nafarroako Mendi eta Eskalada Federazioko ibilbideen arduradun Josu Tximeno eta Irurtzango alkate Unai Razkin zituztela.

Himalayatik Palestinara

Hasteko, joan zen urteko martxa ekarri zuten gogora. "Iaz Iñaki Otxoa de Olza Fundazioarekin elkarlanean jardun genuen eta XXXII. Sakanako Ibilaldia-III. Ochoa de Olza Memoriala antolatuta genuen. Elkarlana oso aberasgarria izan zen. Eurei esker mendi martxa antolatzen beste babesle batzuk lortu genituen, eta guk, izena emate bakoitzetik 2 euro bideratu genituen Iñaki Ochoa de Olza SOS Himalaya Fundaziorako. Ahal genuena gehituta, azkenean 6.000 euro lortu genituen fundazioak Makalu bailarako Seduwa herrian duen ospitalerako" azaldu zuen Morenok. "6.000 euro, Himalayan, asko dira" azpimarratu zuen Himalaya ezagutzen duen Unai Razkinek.

Aurten elkartasunaren bidean aurrera egitea erabaki du Iratxok. "Nori lagundu pentsatzen ari ginela Israelen eraso hasi zen, eta ez genuen zalantzarik izan: Palestinan lan egiten duen UNRWA erakundea lagunduko dugu. UNRWA Nazio Batuen Erakundeko agentzia da, Palestinara sarbidea duen bakarra. Israeliek agentziari egindako boikotari jarraiki, hamabost bat herrialdek bertan behera utzi dituzte agentziari ematen zizkieten laguntzak, eta %70 murriztu dira, euren lana kinka larrian utziz. Horrela, Sakanako Ibilaldian izena emate bakoitzeko 2 euro bideratuko dugu UNRWA-ra. Gaza-

"IZENA EMATE BAKOITZEKO 2 EURO UNRWA AGENTZIARA BIDERATUKO DUGU" MANOLO MORENO



Unai Razkin, Josu Tximeno, Aintzane Sarasola, Doris Vicente eta Manolo Moreno, aurkezpenean.

Ibilaldira, Palestina lagunduz

MENDIA Apirilaren 27an abiatuko da XXXIII. Sakanako Ibilaldia, eta 24ra arte eman daiteke izena. Dagoeneko 648 mendizale animatu dira. Aurten Palestinara sarbide bakarra duen UNRWA Nazio Batuen Erakundeko Agentzia lagunduko du Iratxok

tarren %80 erakunde horren laguntza humanitarioaren mende dago. Osasuna, hezkuntza, administrazioa, ura... guztia sustatzen du UNRWAK, eta Sakanako Ibilaldia ahal duen guztia bildu nahi du eurendako nabarmendu zuen Morenok.

Sakanako Ibilaldia, betikoa

Sakanako Ibilaldia "betikoa" izango da. "Urte hauetan guztietan soilik bi aldaketa egin izan ditugu: 25. urteurrenean Sakanako Ibilbide luzea kontrako norantzan egin genuen, eta Nafarroako konkistaren 500. urteurrenean Gazteluraino heldu ginen. Norabide aldaketaren ez zuen arrakasta gehiegirik izan, eta gogorragoa izan zen. Finean, jendeak ez du aldaketarik nahi, Sakanako Ibilaldia dagoen bezala mantentzea eskatzen digute" aipatu zuen Morenok. "Eta zer-

baitek funtzionatzen badu, zertarako aldatu?" gaineratu zuen Vicentek.

Hiru aukera

Aurreko edizioetan bezala, Iratxok hiru ibilbide prestatu ditu, Irurtzunen hasi eta bukatuko direnak: Sakanako Ibilaldi Luzea (54,3 km, 3.388 m desnibel +): Txurregi, EH erdigunea, Beriain, Uharte Arakil, Aralarko San Migel, Agiri, Madotz, Larrazpil, Trinitatea, Irurtzun); Sakanako Ibilaldi Laburra (25,5 km, 1.440 m desnibel +): Etxeberri, Itxasperri, Madotz, Larrazpil, Latasa,

"IBILALDIKO IZENA EMATEA MARTXA ONEAN DOA. 648 MENDIZALE DAUDE"
DORIS VICENTE

Trinitatea, Irurtzun) eta Ibilbide Txikia (14 km, 730 m desnibel +), etxeko txikienekin egiteko (Trinitatea, Latasa, Plazaolako ibilbidea, Arrantzaleen xenda, Irurtzun). Sakanako Ibilaldia Nafarroako beteranoenetakoa da. Luzea Nafarroako eta Euskal Herriko Iraupen Luzeko Ibilbideen Zirkuituan sartuta dago, eta Motza Nafarroako Iraupen Luzeko Ibilbideen Txapelketan.

Izena ematea, martxa oso onean Apirilaren 24ra arte eman daiteke izena, www.iratxoelkartea.com webgunean. Martxaren egunean bertan ezingo da izena eman, hori oso argi utzi nahi du antolakuntzak. "Urtero etortzen zaigu jendea, baina egunean ezin da izena eman". Halaber, apirilaren 22an, astelehena, 18:00etatik 20:00etara izena emate presentziala eskainiko dute Iratxo

elkartean. "Aurten izena ematea martxa oso onean doa" azaldu zuen Vicentek. Atzo 648 mendizale zeuden izena emanda, 286 Luzean, 313 Motxan eta 49 Txikian. Gehienek azken unera arte itxarongo dute.

Azken urteetan partaide gehienek Ibilbide Motzaren alde egin dute. "Sakanako Ibilaldi Luzea marabilla hutsa da, zoragarria, baina gogorra" nabarmendu zuen Morenok. "Ibilbide Luzeko parte hartzea ez da berez jaitsi; kontua da parte hartzea igo dela eta Ibilbide Motzekoa izan dela gehien igo dena" azaldu zuen Razkinek, datuak aztertuta. Joan zen urtean 1.400 pertsonak eman zuten izena, eta aurten antzeko parte hartzea espero da.

Ingurumena, erronka

Ingurumenean aurrera pausoa emanez, aurten antolakuntzak ez du edalontzirik eskainiko. Hortaz, mendizale bakoitzak berea ekarri beharko du. "Nafarroako Mendi eta Eskalada Federazioaren ildo hori da, edalontziak ez erabiltzearena, eta jarraitu dugu". Halaber, Iratxoren beste kezka bat mendizaleek markatuta dagoen bidea jarraitzea da, paisaia zaintzeko. "Uhartetik Aralarko ibilbidea barratuta dago zenbait guneetan jendeak zabalduko xendekin. Guk betiko bidea markatzen dugu, eta bertatik ibiltzea eskatzen diegu partaideei" adierazi dute Iratxokoek.

Boluntarioen bilera, bihar

Martxan kontrolatan eta guneetan egongo diren ehundik gorako boluntarioen lana lotu beharra dago. Horretarako, bihar, apirilak 20, larunbata, boluntarioen bilera deitu dute Iratxon, 18:00etan. "Boluntarioei gure eskerririk beroenak eman nahi dizkiegu, izugarri laguntzen dutelako. Nahi duen orok atek zabalik ditu".

Sakanako Ibilaldia zenbaki handiak mugitzen ditu. Aurrekontua 17.000 euro ingurukoa da. Kamisetak, opariak, hornidura, aseguruak... dirutza da. Antolakuntzatik ibilaldian izena ematera animatu dute, "egun ederra delako, gozatzekoa. Bukaceran giro ederra egoten da Irurtzungo plazan. Rokodromoa jarriko dugu, sagardo kupela, auzate ederra... eta sari ederrak zozketatuko ditugu. Zuen zain izango gaituzue" gonbidatu dute.



"Palestinak laguntza behar du"

AINTZANE SARASOLA
IRATXO MENDI TALDEA

Sakanako Ibilaldia UNRWA laguntzeko bidea zuk jorratu duzu.

Irakaslea naiz Agoizko Institutuan. Elkartasun eskolekin Palestinako gatazka lantzen ari ginen, UNRWA Nafarroako Javier Moreno teknikariarekin. Sakanako Ibilaldia UNRWA-ren alde izena emate bakoitzeko 2 euro biltzearen proposamenaren berri eman nion, gure ekimena asko gustatu zitzaion, eta aurrera egin genuen. Bitartean, UNRWA-k inoiz baino behar eta laguntza gehiago behar zuela ikusi genuen, Israelen salaketak tarteko hamabost herrialdek dirulaguntza ekonomikoa kendu ziotelako, bere aurrekontuaren %70. Orduan Lidon Sorianorekin harremanetan jarri nintzen. **Nor da Lidon Soriano?** Palestinako aktibista da, medikua eta erizaina, 20 urtez Palestinan lanean aritutakoa. Apirilaren 21ean, igandea, 18:00etan Palestina pairatzen ari den genozidioaren inguruko hitzaldia eskainiko du Irurtzungo Kultur Etxean, Javier Morenorekin batera. **Diru bilketa egiteko afaria antolatuta duzue.** Ekainaren 8an izango da, Iratxon. Bildutako diru guztia emango diogu UNRWA-ri. Palestinak gure laguntza behar du, eta gizartea sentibilizatu nahi dugu.

Arratsalde bat Espejon

XAKEA Altsasuko Foru Plazako taberna Sakanako xakelarien topalekua da. Betiko xakelariei Santi Gonzalez batu zaie, sei aldiz Euskal Herriko xake txapelduna dena. Gonzalezek bizia eman die, eta berarekin asko ikasten ari direla agerikoa da

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Ismael Antonek Espejo tabernaren kudeaketa hartu zuenetik, Altsasuko eta Sakanako xakelarien topagunea da Altsasuko Foru Plazan dagoen taberna. Ismael xake zale amorratua da, eta Legazpi Xake Taldeko xakelaria. Arratsaldero xakelari kuadrillatxo bat hurbiltzen da Espejora. "Kafea hartzera biltzen gara, eta berehala xake taula eta piezak ateratzen ditugu eta egunero jokatzeko dugu partidaren bat" dio Juan Andres Cerrok.

Bertan biltzen dira, ia egunero, Sakanako Zaldi Beltza taldeko Juan Andres Cerro, Mikel Castellano, Victor Barriga eta Juan Jose Arce. Tarteka talde bereko Sebastian Insausti, Koldo Flores, Cesar Razkin eta Jose Angel Arregi batzen zaizkie. Baita Aitziber de Miguel ere, noizean behin. Jakina, etxeko nagusia, Ismael Anton, bertan izaten da, eta beste bi xakelari bildu dituzte taldera, sarritan Espejoko hitzorduetara batzen direnak: Santi Gonzalez xakelari bilbotarra, Donostiako Gros Xake Taldekoa, Euskal Herriko Banakako Xake Txapelketa sei aldiz irabazi duena, eta Iker Iturrioz gazte altsasuarra, aurten Nafarroako Kirol Jokoetako 14 urtez azpikoan Banakako Nafarroako Xake txapeldunordea izan dena eta Oberena taldekoa dena.

Bistan dagoenez, gehienak gizonak dira. "10-11 urte bete baino lehen, neskak eta mutilak paretsu ibiltzen dira xakean. Maila ere, berdina izaten da. Baina 12-13 urterekin emakumeak bereizten dira; gehienek uko egiten diote xakeari, soilik talde txiki- ren bat mantentzen da". "Emakumeak ez omen dira horren lehiakorrak, hori esaten da" dio Barrigak.

ELO puntuazio sistema

Sakanako Zaldi Beltzako xakelariak gehienbat Nafarroako Xake Txapelketetan edo Nafarroako torneotan lehiatzen dira, tartean Sakanakoan. Ismael Anton Legazpi taldearekin Gipuzkoako Txapelketan lehiatzen da, eta baita bestelako torneotan ere. Santi Gonzalez beste maila batean dago, maila gorenean. Xakelari baten maila ELO puntuazio sistemak zehazten du. Finean, matematika metodoa da ELO sistema, kalkulu estatistikoan oinarritutakoa, eta Hungariako jatorria zuen Arpad Elo irakasle eta fisiko estatubatuarrrak asmatu zuen. ELO sistemari jarraiki, Cerrok 1.679 puntu ditu, Mikel Castellanak 1.700, Victor Barrigak 1.680, Iker Iturriozek 1.700 (azken urtean 200 puntu baino gehiago lortu ditu), Sebastian Insaustik 1.800, Ismael Antonek 1.695 eta Santi Gonzalezek 2.405. "Apirilaren 7an Euskal Herriko Banakako Xake Txapelketan parte hartu nuen eta zortzi puntu galdu nituen. Zortzi urte neramatzan jokatu gabe, eta asko nabaritzen da".

Talentua

Santi Gonzalez bilbotarra da, baina Sakanan bizi da. Fisikaria eta ekonomista da, Aldakin enpresako robotika arduradunetako bat. Eta, jakina, bera ere xakelaria da. Sei aldiz Euskal Herriko banakako txapelduna, Euskal Herrian aktiboan dauden xakelarien artean txapelketa

"SANTIK PILAK JARRI DIZKIGU. BERAREKIN XAKEAN ASKO IKASTEN DUGU"

ISMAEL ANTON

gehien dituen da. Mario Gomezek bederatzi txapelketa ditu, baina jada ez du jokatzeko. "Altsasura lanera etorri nintzenean behin Ismaelekin egin nuen topo. Berak ni ezagutzen ninduen. Behin Bilboko Grand Slam final bat ikustera joan omen zen albarekin, eta ni komentaria lanetan nengoen Leontxo Garciaekin. Hitz egiten hasi, eta berehala Espejora etortzen hasi nintzen".

Xakean jokatzeko azkarra izan behar ote den galdetuta, "edozeinek" joka dezakeela uste du bizkaitarrak. "Edozein izan daiteke xakelaria. Lan egiten baduzu eta orduak sartzen badituzu maila handia izango duzu, baina maila gorenean desberdintasunak berezkoak dira. Hau da, hor nabaritzen da nor den, berez, jenio bat eta nor ez" dio Gonzalezek. Iritzi berekoa da Sebas Insausti. "Xakea, berez, ez da zaila. Edonork jokatu dezake. Ongi jokatzeko, hori beste gauza bat da. Xakean buruak funtzionatu behar du, eta jokalaria ona denak burua ere oso-oso ona du". Cerrok ere argi du. "Xakelari onak talentua izan behar du, adimena".

Xakeak harrapatuta

Xakeak harrapatuta du Espejoko kuadrilla. "Xakearen abstrakzioak berak lotzen zaitu gehien. Nahiz eta xakean etengabe ikasi, ez duzu guztia goitik behera kontrolatzen. Ezinezkoa da xakea kontrolatzea" dio Cerrok. Xakea buruko jokoa denez, norberaren animoak eragina du. Ez da komeni oso urduri edo oso lasai egotea, "aktibatuta" baizik. Oso urduria den pertsona xakelari ona izatea zalantzan jartzen du Gonzalezek. "Ez dut uste xakelari ona izango denik. Xakean asko pentsatu behar duzu, eta



Espejon xakean jokatzera biltzen direnetako batzuk. Gehienak Zaldi Beltzakoak dira. Tartean dau...

erabaki batzuk hartzeko super hotza izan beharra duzu, erabaki gogorrek hartu behar baitira. Normalean nerbioen kontrako borroka bat da xakea, erabakiak hartzeari eta denbora kontrolatzeari begira".

Espejon partida azkarrak jokatzeko dituzte, Sakanako Xake Txapelketan jokatzeko direnen antzekoak. "Horregatik tabernako builak ez digu molestatzeko. Ez dira partida luze horietakoak" gaineratu du Cerrok. Partida luze batek orduak eta orduak iraun ditzake. "Apirilaren 6an, Euskal Herriko Banakakoan 10 orduz jokatu nuen xakean, 5 ordu goizez eta beste horrenbeste arratsalde. Ez nuen Athleticeko finaleko bigarren zatia ikusi, pentsa. Eta, gainera, bi partida berdinduta bukatu nituen" azaldu du Gonzalezek.

Gonzalez, EH-ko Banakakoan

Gonzalezek aitortu duenez, "txar to" jokatu zuen Euskal Herriko Banakako Xake Txapelketan. Zortzi urte zeramatzan banakakoan jokatu gabe, "lanarengatik. Ez nuen Banakakoa prestatzeko denborarik. Soilik Euskal Herriko Taldekako Txapelketan lehia-

tzen naiz, Donostiako Gros Xake taldearekin". 2001 urtetik da Gros taldeko kidea. "Taldea ona da". Taldekakoa urtero jokatzeko du. "Taldekakoan, sendo edo solido jokatzeko baduzu, ez da beharrezkoa hainbeste partida irabaztea. Baina banakakoan helburua irabaztea da, eta horretarako arrisku gehiago hartu behar dituzu. Hori egiteko dena kontrolpean izan behar duzu, kalkuluak oso onak eta oso zorrotzak izan behar dira, irekiak ere oso zorrotzak... dena super zorrotza izan behar da, eta hori egin ahal izateko pila bat ikasi beharra duzu".

Euskal Herriko Banakako Xake Txapelketako buelta "oso polita" izan zen Gonzalezendako. "8 urte ondoren aspaldiko lagunekin topo egin nuen; afaltzen egon ginen, pasadizoak kontatzen, oso gustura. Gainera, xakean asko ikasi nuen". 24 xakelarik jokatu zuten finala. Horiestatik erdia duten mailarengatik zegoen sailkatuta, zuzenean, eta hori zen Santi Gonzalezaren kasua. Gainontzekoak Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Xake Txapelketan finalerako txartela lortu zutenak. "Txapelketa hasieran



Iker Berrigak, Castellano, Anton, Cerro, Gonzalez, Iturrioz, Insausti eta Arce.

ni bosgarren nintzen, baina azkenean bederatzigarren sailkatu nintzen. Hori, niretako, txarto da. Baina ez nuen aurreikuspenik, denbora asko neramalako Banakakoan lehiatu gabe. Niretako gehiago zen sentsazioak berreskuratzea, eta alde horretatik, oso ongi". Esan bezala, ELOan 8 puntu galdu zituen Santik. "Berrirri Banakakora lotuko naizen? Ez dakit, hausnarketa egin beharra dut, mailari eutsi eta hobetzeko xakean zenbat denbora sartu beharko nukeen aztertu... izan ere, maila onean egon nahiko nuke".

Iker Iturrioz, gazteena

Jende gaztea xakean hastea kostatzen da, baina atzetik ba omen datoz batzuk. Espejoko kuadrillan gazteena Iker Iturrioz altsasuarra da. "Konfinamenduan hasi nintzen xakean. Aurretik piezak mugitzen banekien, baina ezer gutxi. Nire kabuz xakea ikasten eta gaiari buruz irakurtzen hasi nintzen, eta Oberena klubean sartu nintzen eman nuen lehiatzeko pausoa". Espejokoek "oso ongi" zaintzen dutela dio. Nafarroako Kirol Jokoetan (NKJ) 14 urtez azpiko Banakako txa-

peldunordea izan da aurten Iturrioz.

Tarteka Santi Gonzalezekin geratzen da, jokaldiak ikusteko. "Santirekin asko ikasten da, beti". Hain zuzen ere Euskal Herriko Banakakoan jokatuako partidak erakustera hurbildu zitzaizkien Gonzalez ostegunean, apirilak 11, Espejora. "Txapelketako partidak elkarrekin errepasatu nahi ditut. Kontatuko diet zer pentsatu nuen, nola jokatu nuen... Partidak analizatzeko ditugu, taulei konponbideak bilatu, partidak ordenagailuarekin analizatu... Xakeari denbora pilo bat eskaini behar zaio".

Nafarroako txapelkunordea denez, uztailean aldean Salobreñan jokatu den Espainiako Banakako 14 urtez azpiko Xake Txapelketan parte hartuko du Iker Iturriozek. Santi Gonzalez joango da berarekin, entrenatzaile gisa. Eta ondoren, Almerian, Espainiako Taldekako Txapelketan parte hartuko du, Nafarroarekin. Ismael Antonek Taldekako Gipuzkoako Xake Ligari ekingo dio berehala, eta Santi Gonzalezek, beste hitzorduen artean, abuztuan Espainiako lehenengo mailako Taldekako



Santi Gonzalez, erdian, EH-ko Banakakoan egindako jokaldiak azaltzen.

Xake Txapelketan parte hartuko du bere taldearekin Linaresen (Jaen).

Ordenagailuak eta beste

Xakea geroz eta gehiago jokatzen da interneten. "Bereziki pandemiaren ondotik. Aurreko astean xake txapelketa bat ikusten egon nintzen Menorcan. Madrilgo David Martinez "el Divis" laguna zegoen komentaria, eta une batean esan zuen: "gomendatzen dizuet xakean presentzialki jokatzea, gehienak soilik online jokatzen duzuelako. Online jokatzen da gehiago presentzialki baino". Iritzi berekoak dira guztiak. "Lichess.org webgunean sartu eta agian 100.000 xakelari baino gehiago daude une horretan jokatzen" dio Antonek.

1996an ordenagailu batek lehenengo irabazi zion gizaki bati, Gari Kasparovi. "Justu-justu, baina makinak irabazi zuen. Zentzu horretan, ordenagailuak asko hobetu dira. Egun, xake modulu belaunaldi berria dago, programa informatiko garatuak, xakean ikasteko Adimen Artifiziala erabiltzen dutenak. Alpha O-k, partikulariki, oso ongi jokatzen du xakean" azaldu du Gonzalezek. Behin jokatu du berarekin. Normalean bere jokoa hobetu eta aztertze motor bat erabiltzen du bizkaitarrak. "Gaur egun motorren maila pertsona baino handiagoa da. Ez da gizakion bukaera, makinek sormenik ez dutelako, ideiak ez dituztelako... baina oso ongi kalkulatu dute". Berak erreminta gisa erabiltzen ditu. "Entrenatzen dudanean, partida nondik jo dezakeen pentsatzen dut, eta ordenagailuari xehetasun konkretuak kalkulatu uzten diot. Talde bat bezalakoa gara. Non bilatu behar

duen eskatzen diot, eta makinak nik dudak ideien erantzuna ematen dit. Horrela, erantzun horrek funtzionatzen duen edo ez ikusten dut. Finean, fisikako problema batean kalkulagailua erabiltzea bezalakoa da".

Beste mundu bat da. "Oso ezberdina da Santiren maila eta bere txapelketak edo Espejora partida bat jokatzea etortzea. Hemen jokatzeke ez dugu ordenagailua erabiltzen. Bi mundu dira" aipatu du Mikel Castellano. Nolanahi ere, txapelketek beti lehia dakarte eurekin. "Norberak bere mailan jokatu nahi du, eta kirol emaitza ona lortu, ELO sailkapenean gora egitea", Gonzalezek esanetan.

Zaldi Beltza, lehenera igotzear

Zaldi Beltza taldea Nafarroako Taldekako Txapelketan lehen mailara igotzear egon da aurten, baina ezinezkoa izan da. "Taldea bakoitzak sei xakelari ditu, baina zenbait saiotan hiruzpalau egon gara jokatzen. Hortaz, Taldekako puntu askok ihes egin digute horrela" aipatu du Insaustik. Zenbait urtetan lehen mailan jokatu zuten Zaldi Beltzekoek, "eta lehen mailan joka genezake; maila badugu, baina jende faltagatik geratu gara igotzear". Taldea zabal-zabalik dagoela gogorazi nahi diete sakandarrei. "Gustura hartuko genuke jende berria".

Mikel Castellano neguko Nafarroako Banakako txapelketa izan

**"BANAKAKOAN
ARRISKUAK HARTZEN
DIRA; HORRETARAKO,
ASKO IKASI BEHAR DA"
SANTI GONZALEZ**

Carlsen eta bestelakoak

Gustuko duten xakelariez galdetuta, Antonek Magnus Carlsen alde egin du. Baita Berrigak ere. Carlsenek 20 urte daramatza munduko txapelketa. "Egun, teoria dakien bakarra da, eta zerbait berria egiten saiatzen den bakarra". Cerrok Mijail Botvinnik du gustuko, "egungoetatik, ezta bat ere. Ordenagailuarekin eta beste xakea oso tekniko bihurtu da". Gonzalezek Gari Kasparov aipatu du, "borrokalari petoa". Iturriozek Bobby Fisher eta Mijail Tal, eta Arcek Jose Raul Capablanca.

da. "Mikelek asko egin du aurrea; Taldekako Ligan ere oso lan ona egin du" nabarmendu du Gonzalezek. "Guztia Santiren errua da" erantzun du, irribarrez, Ismael Antonek. "Santik pilak jarri dizkigu. Partidak jokatzea etortzen denean, egunero ari direnak askoz ere gehiago ikasten dute". Argi dagoena da Gonzalezek Esker Espejoren biltzen diren xakelariak salto kualitatiboa eman dutela. "Noizean behin Santirekin jokatzea etortzen naiz, oso gustura. Disfrutatzen da" gaineratu du Insaustik. "Hor dago Ikerren adibidea. Duela urte bat justu-justu zekien xakean jokatzen, eta orain ia guztiei buelta ematen digu. Horrela dago gauza, argi eta garbi" dio Ismaelek. Iker Iturriozek irribarre egin du. "Asko ikasten dut Santirekin". "Oberean ere irakasle onak ditu" erantzuten du aipatutakoak. Ismael, lana dela eta "nahi baino gutxiago" aritzen da xakean. "Torneoetan eta Gipuzkoako Taldekako Txapelketan bai. Eta interneten, hor ibiltzen naiz, 3 minutuetako partida horietan".

Ateak zabalik

Espejoko xakelariak ez dute eguneko hitzorduari muzin egiteko inolako asmorik. "Gustura gaitza xakean, ongi pasatzen dugu. Nahi duena etor dadila ikustera edo jokatzea, lasai asko. Eta animatzen denarendako, Zaldi Beltza taldeko ateak zabal-zabalik daude".



Iker Gomez, Segurako podiumean. UTZITAKOIA

TXIRRINDULARITZA Gomez, Seguran irabaztetik, Italiako sterratora

Iker Gomez Lopez de Goikoetxea ez da gelditzen. Apirilaren 7an Espainiako selekzioarekin Paris-Roubaixen lan bikaina egin eta gero, apirilaren 13an, larunbata, Segurako Saria irabazi zuen, denboraldiko bere bigarren garaipena, martxoaren 3an Altsasuko 38. Udaberri Sarian lortutakoaren ondotik. Handik Italiako bidea hartu zuen, Espainiako selekzioak deituta, atzo, osteguna, Nazioen Koparako baliagarria zen L'Eroican lehia-tu baitzen. Lehenengo etapa taldekako erlojupekoa zen, eta Espainiako selekzioa seigarren sailkatu zuen.

Igandera bitartean sterratoro famatuan, lur gainean, beste hiru etapa jokatu ditu Gomezek. Selekzioaren helburua orain arte Guidoko Klasikoan eta Paris-Roubaixen egindako lan onarekin jarraitzea da. Hector Alvarez da selekzioeko liderra; Guidoko Klasikoan etapa bat irabazi zuen, eta Paris-Roubaixen bederatzigarren izan zen, Gomezen laguntzari esker.

HERRI KIROLAK Sakanako herri kirolariak Ihabarren bilduko dira

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatuta, igandean, 12:00etan, Ihabarrekin Sakanako XXIV. Herri Kirolen Eguna hartuko du. Sakanako aizkora eta harri jasotze eskolatan egiten den lanketa ikusteko aukera paregabea eskainiko du Ihabarko plazak. Haiekin batera, bestelako herri kirol erakustaldiak egongo dira.

Mikel Astiz, Zuian sorpresa ematetik gertu

DUATLOIA Distantzia Erdiko proba gogorra osatu zuten 400 duatleten artean laugarren sailkatu zen Ihabarko duatleta, bereziki txirrindularitza sektorean egindako lan ikusgarriari esker. Orain triatloi denboraldiari ekingo dio, Peñiscolako half triatloian

Maidar Betelu Ganboa IHABAR

Mikel Astiz Erro Ihabarko duatleta balentria gauzatzear izan da. Lizarrako Duatloia eta Agoizko Duatloia irabazi eta gero, azken hau Nafarroako Sprint Duatloi Txapelketa, Altsasuko Duatloian bigarren izan zen, eta bere erronka nagusia apirilaren 13ko Murgia-Zuiako Duatloian maila onean aritzea zela azaldu zuen. Astizek asko du ospatzeko, sorpresa eman eta laugarren sailkatu baitzen, podiumetik gertu.

Bero galantarekin jokatu zen Murgia-Zuiako Duatloia (15 km-70 km-7 km). Korrikako ataleko lehen 15 kilometroetan erritmo gogorra ezarri zuten Gonzalo Fuentesek eta Fernando Zorrillak. Hasieratik alde atera zuten, eta elkarrekin osatu zuten lehen eremua. Bizikleta hartu bezain pronto, Fernando Zorrillak eraso jo, eta bakarrik egin zuen aurrera. Atzean Gonzalo Fuentes, Victor Arroyo eta Pello



Mikel Astizek txirrindularitza sektore ikusgarria egin zuen Zuian. UTZITAKOIA

Oso zituen. Atzetik, Mikel Astizek bizikleta tarte ikusgarria egin zuen, eta postu nahikotxo egin zituen aurrera. Bizikleta uzteko trantsizio gunera Zorrilla bakarrik iritsi zen. 1:48ra Pello Oso sartu zen, 6:42ra

Gonzalo Fuentes, 9:21era Ruben Ruzafa eta 9:56ra Mikel Astiz. Ikusgarria.

Ez zuen espero

Korrikako azken 7 kilometroetan Zorrillak beste erreztaldi bat

eskaini zuen, eta meritu handiz irabazi zuen proba (3:11:09). Pello Oso 3:59ra sartu zen, bigarren; Gonzalo Fuentes 8:08ra, hirugarren, eta Mikel Astiz 11:49ra, laugarren, lan bikaina eginda. "Oso pozik nago. Zuian aurreneko postuetan sartzea ia ezinezkoa da. Proba hasi baino lehen, laugarren bukatzea gustura asko sinatuko nukeen. Zegoen maila ikusita Top 20an sailkatzea, hori zen asmoa, baina gutxinaka aurrean sartu, eta, azkenean, ederki sufrututa laugarren iritsi nintzen. Ez nuen inondik inora espero, eta oso pozik nago".

Guztira 360 gizonen eta 36 emakumezkoen zuten proba gogorra. Emakumezkoetan Helene Alberdi izan zen txapel-dun handia (3:48:47), Marta Borboni 6:32 aterata. Yaiza Saiz hirugarren sailkatu zen, 15:19ra.

Hurrenak, half triatloiak

Asteburu hau atseden hartuko du Astizek, merezitakoa. Azken aldaketarik ez badago, Mikel Astizek triatloien denboraldiari ekingo dio. Hiru distantzia luze edo half triatloi egiteko asmoa du: Peñiscolakoa, apirilean 28an, Oropesa del Marreko Epic Triathlon, maiatzean, eta Burrianakoa, ekainean. "Triatloian igeriketa-arekin nahiko lan izaten dut, baina ordu asko sartu ditut aurten; ea uretan zer moduz moldatzen naizen, eta ea half-ak nola ateratzen diren.


Sakanako Atletismo Kopa bueltan da

ATLETISMOA Aitzkibil eta Ziordiko Lasterketa Solidarioa izango dira Mank-en Kopan puntuatuko duten lehenak

Pandemia eta hainbat arrazoi zirela medio azken urteetan ez da Sakanako Atletismo Kopa jokatu. Sakanako Mankomunitateak kopa berreskuratzea erabaki du, korrikalari sakandarrek ibarreko lasterketetan parte hartzea sustatzeko.

Aitzkibil eta Ziordia, gertu

XVII. Sakanako Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Sarian lau probek puntuatuko dute. Lehena maiatzaren 19an Urdiainen jokatuko den XVIII. Aitzkibil elkartasun krosa izango da, biga-




Aitzkibil aurten ere Urdiainen izango da.

ren ekainaren 15eko Ziordiko XI. Lasterketa solidarioa, hirugarrena irailaren 21eko Ergoienako XVIII. Bira, eta laugarrena abenduaren 8ko Zubeztia Elkarrearen XLIII. Lasterketa, Altsasun jokatuko dena. Lasterketa hauetan Sakanako hamar korrikalari onenek puntuatuko dute, 10 emakumezko eta 10 gizonetzko. Parte hartzeko, gutxienez urtebete lehenagotik Sakanan erroldatuta egon behar dute. Korrikalariak Kopan puntuatzen dituzten lau probetatik hirutan parte hartu beharko dute Kopako azken sailkapenean puntuatzeko. Txapeldunek 80na euro lortuko dituzte kirol materialean, bigarrenek 60na euro, eta hirugarrenek 40na euro. Lau lasterketak osatzen dituzten korrikalarien artean saria zozketatuko da.

ESKALADA Gazteenak eskaladara hurbiltzeko ikastaroa

Sakanako Mankomunitateak 8 eta 12 urte bitarteko neska-mutilendako eskalada ikastaroa antolatu du maiatzaren 31tik ekainaren 2ra bitartean, Nafarroako Kirol Institutuaren laguntzaz. Hastapeneko ikastaroa da, eta helburua gaztetxoak eskaladara modu seguruan hurbiltzea da, haitzean eskalatzeko oinarrizko ezagupen eta teknikak lor ditzaten. Irakaslea Ion Gurutz Lazkoz Martinez arbuizarra da, eskalataile eta bide ekipatzaile ezaguna da. Maiatzaren 31n alde teoria landuko dute, Mank-en, eta ekainaren 1ean eta 2an alde praktikoa, haitzean. Izena ematea zabalik dago Kirol Zerbitzuan (948 464 866): Prezioa: 39 euro.



Xabier Mendiguren 'Oso latza izan da' liburuarekin. KRONIKA.EUS

"Oso latza izan da", memoria kolektiboan gelditu diren hitzak

Joxe Arregiren heriotza eta 1981eko otsailko gertakarietan oinarritutako 'Oso latza izan da' liburuak kaleratu du Xabier Mendigurenek. Fikziorik gabeko nobela da, eta apirilaren 22an, astelehenean, aurkezpena egingen du Etxarri Aranazko liburutegian

Eneida C. M. eta E. R. B. ETXARRI A. 1981ko otsail hasieran, Joxe Arregik, Carabanchel espetxeko erizaindegian hil zorian zela, alboan zituen hiru preso politikoei "oso latza izan da" esan zien. Handik gutxira hil zen. Torturaz hil zela frogatzeko, zenbait lagunek gorpua hilobitik atera eta argazkiak egin zizkionten. Egun horietan ardaztu du Xabier Mendigurenek *Oso latza izan da* nobela. Apirilaren 22an, astelehenean, Etxarri Aranazko liburutegian, idazleak solasaldi aurkezpena egingen du, Jon Arratibel Xafan-ekin batera; 2011. urtean atxilotu eta torturak jasan zituen etxarriarrak eta Aznugal hitzarekin sinatu zuen deklarazioa, laguntza hitza atzekoz aurrera, alegia.

"Joxe Arregiren irudia, bere gorpua, argazki horiek, eta 'oso latza izan da' esaldi hori euskal-

dun askok gogoan daramagu. Geroztik etorritakoek erreferentziaren bat izango dute, ez dute hain fresko izango, edo ez dute jakingo ere". 1981ko urte horretan gertatutakoa ezagutu zutenek "oso bizi" gogoratzen idazleak. Gaztea zen, eta nerabezaroan jasotzen diren gertakariak "oso barrura" sartzen direla gaineratu du. "Niri oso barruraino sartu zitzaidan Joxe Arregirena".

Urtetan "gogoaren txoko batean" edo erdi ahaztuta izan zuela esan du idazleak. "Iaz Zizurkilan andrearekin nengoen eta hango

"1981KO OTSAILAN GERTAKARI KATE BAT IZAN ZEN, ARRASTO OSO SAKONA UTZI ZUTENA"

eskolan umea jasotzen emakume bat ikusi genuen, eta esan nion Bizente Ameztoren alaba zela; Bizente Ameztoi nor zen azaltzen hasi nintzen". Bizente Ameztoi pintore ospetsu bat zen, kultura munduan ezaguna, eta "horrelako saltsan sarturik ez zegoena". Joxe Arregiren gorpua hilobitik atera eta argazkiak egiten ibili zirenetako bat zen. "Esplikatzeko ulertu; konturatu nintzen ez niola ongi azaldu, baina aldi berean esan nion neure buruari hortxe istorio bat baneukala". Mendiguren aurretik saiatu izan zen Joxe Arregiren istorioa, "garai hura, otsail hura", kontatzen, baina ez zuen asmatzen nola. "Orduan ikusi nuen bere bizitzarekin batera, bere gorpua ateratzen ibili zirenen bizitzak oso desberdinak zirela, eta horiek paraleloki kontatuta nobela in-

dartsua, atsegina eta originala gelditzen zela. Hori zen, behintzat, nire intentzioa eta pretentsioa. Irakurleek esan beharko dute zenbateraino asmatu dudana".

1981ko otsaila

Berehala idazten hasi zen. "Konturatu nintzen informazio gehiago behar nuela". Protagonistak izan zirenak elkarrizketatzen eta ikertzen hasi zen: "Nor gehiago izan zen gorpu ateratze horretan, eta nola izan zen. Kontu izkutuak izaten direlako, neurri batean ilegalak". Aldi berean, otsail horretan gertatu zirenak ere kontatu behar zituen, "ez baitira huskeriak": Juan Carlos Espainiako erregea Eusko Gudarriak kantatzen hartu zuten Herri Batasunako parlamentariak; Lemoizko zentral nuklearra eraikitzen ari zela Iberdueroko ingeniari burua, Jose Maria Ryan, ETAK hil zuen, Joxe Arregiren atxilotarekin batera gertatu zela, eta handik egun batzuetara Tejeroren estatu kolpea izan zen. "1981eko otsaila gertakari kate bat izan zen, arrasto oso sakona utzi zuena. Nire ustez, hurrengo urteetako politika nolakoa izango zen finkatu zuen; zein jartzen zen lubakiaren alde batean edo bestean". Hori kontatu nahi zuen nobelan.

Oso latza izan da benetako gertakarietan oinarritutako nobela bat dela esan du Mendigurenek. "Kontatu dudana guzti-guztia benetakoa da". Nobelista lana "zer sartu eta zer ez eta zer zeren ondoan kontatu" erabakitzerakoan egin du. Historialari bat balitz bezala, "zorrotz" eta fikziorik sartu gabe kontatu du gertatutakoa. "Literaturan fikziorik gabeko nobela edo, kazetari batek esan zidan, kronika bat dela, baina oso modu literarioan kontatuta. Bata edo bestera deitu daiteke; benetako gertakariak nobela baten estiloan kontatuta".

Hasiera eta bukaera "pixka bat literarioagoak dira" eta erdian dagoena periodistikoagoa: "Barruak eskatzen zidan horrela idaztea". Hiru pertsonaien bizi-

"NOLABAIT MIRARIA EGIN ZUEN, ASKOREN KONTZIENTZIA PIZTEKO ETA ASTINTZEKO"

za paraleloki kontatuta agertzen da: Joxe Arregi, Bizente Ameztoi eta Juan Kruz Unzurrunzaga arte galerista. "Gehiago jakin nahi duenak edo liburua irakurri edo Etxarriko liburutegira joan beharko du".

Irakurleen erantzuna "oso-oso atsegina" izaten ari dela esan du idazleak. "Batziek esaten didate: beldurra ematen zidan liburuak gaiagatik gogorregia izango ote zen, baina gero ez da hain gogorra". Goxotasuna eta umorea badu. "Beste batzuk guztiz hunkituta eta eskertuta etorri zaizkit, Euskal Herrian badakigulako asko eta asko izan direla torturatuak eta denok dugu lagunena edo seniderena bat, eta oso gutxitan kontatzen da". Torturaren gaia gogora ekartzeak "esker ona" piztu duela gaineratu du Mendigurenek. "Oso pozik nago horrekin. Jende askori barrura iritsi zaio".

Pasioa

Liburuaren azalean kristo hila irudia agertzen da. "Azal hori nahi nuela oso argi izan nuen liburua idazteko ideia izan nuenean". Kasualidadez irudi hori ikusi zuen eta hori zela pentsatu zuen. "Gaurko gazteei ez zaie gertatuko beste erreferentzia batzuk dituztelako, baina garai batean katekisia, eliza eta aste santuko elizkizunak ezagutu izan ditugunok, niri behintzat, kristoren hila irudia etorri zitzaidan Joxe hila ikustean". Pasioa gaur egun maitasunezko istorio bati buruz hitz egiteko erabiltzen dela gaineratu du, "baina pasioa berez sufrimendua da. Jesukristoren pasioa haren heriotzaraino izan zuen tratu txar hori azaltzen du, eta Joxe Arregik ere izan zuen pasioa, izan zuen heriotza, eta nolabaiteko berpizte bat". Kristo hirugarren egunean hilobitik atera omen zen bezala Joxe Arregi argazkiak egiteko atera egin zuten, "eta argazki horien bitartez agertu egin zitzaigun euskaldunei. Nolabait miraria egin zuen jende askoren kontzientzia pizteko eta astintzeko".

"Estatutik esaten dute tortura ez dela egon edo salbuespenak izan direla, baina guk euskaldunok badakigu hori gezurra dela; tortura sistematikoa izan dela eta salbuespena batzuetan agerikoa izan dela".



Iortia Antzerki taldearen berria

Apirilaren 27an, larunbata, 19:30ean, Altsasuko Antzerki Taldeak 'Tres años después' lana mustuko du, Iortian. Sarrerak 5 eurotan eros daitezke, webgunean eta txarteldegian. Antzerki taldeko kideek sortzen duten antzezlanak, eta hondamendi baten ondoren Sakanako bazter batean aurrera egiten jarraitzen duen emakume eta talde baten komeriak kontatzen ditu.



BAZTERRETIK

MIKEL MAIZA RAZKIN

Kateak hautsita

Orain dela denbora asko interes handia dut super heroien komikietan. Istoriarik epikoenak genero horretan daude bilduta! Nork ez du noizbait amestu egun batez Superman bihurtzea? Nik egunero! Ohartu gabe eta ohitura bezala, hilabetero erosten nuen Batmanen komikia. Inertziak, hilabetero miatzen nuen komiki dendako apala. Inertziak, beti ateratzen nintzen dendatik eskuetan Batmanen hileroko komikia nuela.

Nahi izan gabe, hileko komiki haren esklabo bilakatu nintzen. Berdin zen komikiak kontatzen zuen historia polita zen edo ez, nik beti erosten nuen hilabeteko Batman komikia. Saga ona zenean sekulako zirrara nuen komikia irakurtzeko, aurreko hilabetekoak berrirakurtzeko baita ere! Bestalde, saga txapa hutsa baldin bazen... Buff, ez zegoen hura baino sentsazio okerragorik. Saga bukatu zedin irrikaz nengoen. Gainera, askotan istorioak korapilatsuak zirenean ez nuen deus ulertzen (bai, gorroto dut "el acertijo" maltzur nazkante hori, aitortzen dut). Hobe zen sei hilabetez komikia erosi, ez

irakurri eta behin saga guztia eskuan izanda, guztia jarraian irakurtzea. Baina orduan zertarako egin bilduma?

Superheroien komiki argitaletxe handienek, DC-k eta Marvelek, protagonistak eta frankiziak laranja bat balira bezala zuketzen dituzte mugaraino, hileroko. Batman, Batman detective comics, Batman White knight, Batman Black knight, Batman and Robin, Batman Robin and their dog in bizikleta... Pikutara!!! Estrategia hori irakurle bildumazaleei dago zuzendua.

Horiek, nik bezala, hileroko erosiko dute komikia. Hilabete batez galduz gero, antsietateak harrapatzen zaitu. Nire bilduma ez dago bukatuta! Hilabete honetako berezia da! Komikia deskatalogatuko dute eta ezingo dut inon ere aurkitu! AAAAAAI!

Nik, Supermanen antzera, kateak hautsi eta aski da esan dut! Super heroien komikiez gozatuko dut, baina ez dut argitaletxeen praktika nazkagarri horietan parte hartuko! Ez dute nire emozioekin gehiago jokatu! Hurrengo hilean hasiko naiz... Batmanen saga bukatzen denean...

Musikarekin "bidaiatu", kultur etxetik atera gabe

Victor Mesanzak musika "sendagilea eta dimentsionala" egiten du. Musikarekin "eramaten uztea" proposatzen du, "gauza desberdinak" esperimentatzeko. Bihar, larunbata, Lakuntzako kultur etxean izanen da

Erkuden Ruiz Barroso LAKUNTZA

Victor Mesanza "15 eta 20 urte bitarte" daramatza musika sortzen. Ez da nolana hiko musika, musikariak deskribatu duenez, "sendagilea eta dimentsionala" baita. "Jende guztia ez du zertan sendatu, eta dimentsionala, beste dimentsioetara bidaiatzen duelako jendeak". Apirilaren 20an, larunbata, 18:00etan, Lakuntzako kultur etxean, kontzertua emanen du. Herrian emanen duen bigarren kontzertua izanen da; "abenduaren 30ean egin nuen lehenengoa eta asko gustatu zitzaidan tokia eta nola entzuten zen". Horregatik itzultzea erabaki du. Kontzertura joaten direnek eroso, lasai eta etzanda egoteko edozein gauza eraman behar dute, esterillak edo tunbonak, esaterako. Mesanzarena "zerbait desberdina" da.

"Niri interesatzen zaidana eta musikarekin egiten dudana da nik ditudan sentsazioak elkarbanatzea. Jendea musikaren bidez joatea eta ikustea dena begiratzen". Kontzertua hasten denean argiak itzaltzen dituzte eta argitxo bat pizturik uzten du Mesanzak, jendea etzanda egoten da eta bakarrik egongo balira bezala sentitzeko esaten dio jendeari. "Joaten uzteko esaten diet". Adimena "arrazionala" utzi behar da Mesanzaren kontzertuetan. "Gustatzen zait aurretik azalpenik ez ematea, eta oso ongi pasatzen dut gerora, behin bukatuta, jendea etortzen denean eta gertatu zaiena kontatzen didatenean. Ondoren, azalpenak ematen dizkiet". Musikaren bidez entzuleek "gauzak ikusten" dituztela esan du musikariak.

Kontzertuak ematen duela bost bat urte hasi zen. Ordura arte, modu indibidualen ematen zituen saioak bere estudioan. Egiten duen musika instrumentala da. Entzuten duenak "musikaren bidez gidatu behar da, utzi eramaten, eta momentu txarrak



Victor Mesanzaren kontzertu bat. UTZITAKOA

VICTOR MESANZAK LAKUNTZAKO KULTUR ETXEAN EMATEN DUEN BIGARREN KONTZERTUA DA

badaude utzi eta gero itzuliko zara". Kontzertuetara dena grabatuta eramaten du, eta instrumentu asko tartekatzen ditu. "Abesti batean agian hiru piano egon daitezke. Melodiak jarraitzen du eta orduan jendeak uste du biolin bat sartuko dela, esaterako, baina bat-batean danbor baten soinua sartzen dut, eta dena apurtzen du". Hor sortzen dela magia esan du Mesanzak.

Tresna

Musika "desberdin" hau burua "zabaltzeko eta beste toki batzuetara" bidaiatzeko tresna bat dela esan du Mesanzak, eta horretarako sortzen hasi zen. "Beste errealitateetara joateko erabiltzen dudana tresna bat da. Dena dirudiena baina handiagoa da". Batzuek beste errealitateetara joateko "gauzak hartzen" dituztela esan du, berak ez direla behar

uste du: "Musika tresna bat da, adimen arrazionala alde batera uzteko tresna bat".

Oihane Andueza lakuntzarraren *Visibles In-visibility* liburuan parte hartu zuen, eta liburuan musikak eragiten dituen gauza asko azaltzen dira. "Batzuek ezinezkoak dirudite, baina bertan agertzen den guztia egia da. Irakurtzen duzuean ez dela posible pentsatzen duzu, baina bai. Nik prozesu horretan parte hartu nuen".

Lakuntzako harrera oso ona izan zen, eta bueltan izango da. "Asko gustatu zitzaidan tokia bera eta jendea. Beraiek kontatu zizkidaten sentitu zituzten esperientziak asko gustatu zitzaizkidan". Esaterako, pertsona batek kontatu zion esperientzia bat eta aurretik beste batek esperientzia berdina kontatu zion. "Elkar ezagutzen ez duten bi pertsonen esperientzia berdina kontatu zidaten. Abesti batekin berdina ikusi zuten". Dena "lotuta" dagoela erakusten duela esan du Mesanzak. "Beste batek esan zidan, harriritu eta sinistu gabe, musika belarririk entzuten hasi zela, eta gero barruan entzuten zuela".

Eneida C. M. eta E. R. B. URDIAIN

Pandemiaren koarentenaren ondoren Haritz Goikoetxea baxu-jotzailea eta Gaizka Lanas gitarra-jotzailea elkartu ziren. Lehenengo entsegu horretan zerbait sortzeko ideia atera zen eta "pixkanaka" maizago elkartzen hasi zirela azaldu du Lanasek. Euker Perez bateria-jotzaileari proiektuan parte hartu nahi zuen galdetu, eta baietz esan zuen. Hiru urdin-darrek Haizkan taldea sortu zuten duela lau urte. Duela pare bat urte *Etsi* EPa kaleratu zuten, eta orain bederatzi abestiz osatutako diskoa kaleratu dute: *Zauriekin*. Diskoa Urdiaingo Kaluxan eta Altsasuko Arkan-goan eros daiteke.

Nolakoak izan ziren hasierak?

Haritz eta biok hasi ginen eta lehenengo entseguan ez genuen gauza handirik egin, baina guxienez ideia atera zen eta pixkanaka elkartzen hasi ginen. Letra batzuk atera genituen, oso gutxi, melodiaren bat egin genuen, eta konturatu ginen maila ez zela oso ona, egia esan. Gero Euker hastea eskaini genion, eta baietz esan zuen. Hirurak gaztetxean entseatzen hasi ginen, gaztetxekoei galdetu genien bertan entseatu ahal izateko, eta pixkanaka-pixkanaka hasi ginen. Gero udalari entseatzeko lokal bat eskatu genion eta hor salto bat izan zen guretzat; entseguak pixka bat serioagoak ziren, beste helburu batzuekin.

Nolakoak izan dira urte hauek?

Bidea polita izan da, baina adin honekin, esan nahi dut, gazteak gara, 20 urterekin hasi ginen, baina ez da 16 edo 18 urterekin bezala talde bat egiten duzula, eta ateratzen dena. Momentuz ongi goaz. Zortea izan dugu hirurak urdindarrak garelako, eta bakoitzak instrumentu bat jotzen duelako. Aurrera.

Kantak grabatzen joan zarete, ezta?

Hiru abesti kaleratu genituen. Berez ez genekien singleak izango zirela. Betiko estudioan grabatu genituen, Beran, diru aldetik-eta ez gaudelako oso ongi. Esan genuen, grabatuko ditugu, kaleratu, eta etorkizunean beste zerbait kaleratzeko aukera badugu diskoa egingo dugu. Eta horrela izan da. Disko bat grabatzeak kostu handia dauka, guretako are gehiago, oraindik ikasten eta lanean gaudelako. Gure estudioarekin zortea izan

"Diskoa nolabait zauriekin egina dago; gure mobidekin"

GAIZKA LANAS MUSIKARIA

Haritz Goikoetxea eta Euker Perez lagunekin batera Haizkan taldea sortu zuten, Urdiainen, duela lau urte. Lehenengo diskoa kaleratu dute: 'Zauriekin'



Haritz, Gaizka eta Euker, Haizkan taldeko kideak. UTZITAKOIA

dugu. Xumea da, eta Maikerek ongi tratatzen gaitu alderdi guztietan.

Noiz iritsi zen diskoa grabatzeko momentua?

Zortzi abesti genituen erabaki genuen grabatu nahi genuela. Urdiainen Imanol Goikoetxea Gozategiko eta talde gehiagotako gitarrista dugu, eta guretako

pixka bat erritual antzeko bat da berari abestiak erakustea. Lokalera etortzen da eta gurekin jotzen du. Berak esan zigun hobetu dugula eta hemen edo hor beste zerbait egingo zuela. Berak ere badu bere estilo propioa eta horrek laguntzen digu gauzak argiago ikusten. Erabaki genuen baietz, diskoa grabatzeko prest geundela, eta joango ginela. Baina niri buruan sartu zitzaidan bederatzi abesti nahi genituela, eta abesti batekin hasi nintzen. Hiru astetan bukatu genuen, eta pixka bat berde bagenuen ere, ondo atera zen. *Lurperatuak* abestia da, diskoaren laugarrena.

Nolako da sortze prozesua?

Hitza konplikatu da, oso abstraktua. Hasiera letra batekin has gaitezke, eta esaten duenarekin abesti batera bideratzen dugu. Nire kasuan, gitarrarekin gustuko ditudan melodiekin hasten naiz eta pixkanaka sortzen joaten naiz. Abestiak Haizkanek egiten ditu, hirurak batera egiten ditugu. Haritzek letra politik egiten ditu, eta, adibidez, nik esaten diet zerbait sortu dudala, ea iruditzen zaien. Lokalean entseatzen dugu eta bakoitzak bere ideiak sartzen ditu. Euker esan dezake bateriak tu-tu-pa egin beharrean tu-pa egin dezakeela. Horrelako gauzak; horrela ibiltzen gara. Motel ibiltzen gara, ez da bakoitzak bost abesti eramaten dituela eta horietatik aukeratzen dugula.

Eta diskoa grabatzea nola izan da?

Oso ondo pasa nuen, baina konturatzen zara ez duzula pentsatzen zenuen bezain ondo kantatzen edo gitarra ez duzula hain ondo jotzen. Maikerek esaten zuen: "Altuago!". Guay egon da. Pozik gaude Maikerek esan zigulako asko hobetu dugula, nabaritzen dela abestiak landuagoak dardela eta oso gustura ibili ginen. Txandaka grabatzen dugu: Euker bateriarekin hasten da, gero Haritz bajuarekin eta gero nik gitarrarekin eta ahotsarekin bukatzen dut. Gero koroak. Ongi, oso gustura.

Zer kontaktatu du diskoak?

Letrak pertsonalki egin ditugu, ez dugu horrela gai bat jarri edo zerbaiti buruz hitz egin. Haritzek letrak egiten dituen berak pentsatzen duen modurekin idazten ditu, baita nik ere. Kritika sozialari buruz hitz egiten dugu, bakoitzak bere esperientziarekin nola bizi dituen gauza horiek. Politika pixka bat ere sartu dugu, hala nola hizkuntza eta Gazako sarraskia. Baita maitasun pixka bat ere badago. Diskari *Zauriekin* deitu genion Haritzek esan zuelako nolabait diska zauriekin egina zegoela, bakoitzaren mobidekin. Azkeneko abestia, *Hegan*, nire gauza pertsonala zen; Maikeli eskutitza idatzi nion, eta sartu nahi nuen. Rap moduko bat egin nuen.

Nola duzue agenda?

Baditugu kontzertu batzuk, oraindik ez ditugu iragarri, baina Lazkaoko festetan joko dugu Sukena eta Unidad Alvesa nahiko goian dauden bi taldeekin; Azpeitian, Ermuan eta Txantrean ere egongo gara. Beste toki batzuetatik ere deitu digute, baina datak koineziditzen dute. Pozik gaude.



"KRITIKA SOZIALARI BURUZ HITZ EGITEN DUGU, POLITIKA, BAITA MAITASUNA ERE"

GAIZKA LANAS

"Udaberriko festak herriak antolatu ditu"

Apirilaren 26tik 28ra Udaberriko festak ospatuko dituzte Bakaikun, herriko "herri txikiak" izateko sortu dituztenak. Ekhi Etxeberría Bakaikuko zinegotzia da eta festen antolakuntzan egon da, baina "autogestionatuak" izan direla esan du

Erkuden Ruiz Barroso BAKAIKU

1 Nola sortu dira Udaberriko festak?

Azken urteetan, pandemiatik edo, kuadrillan edo elkartzen garen giroan komentatu zen Udaberriko festak antolatzea. Inguruko herrietan herri txikiak eta feriak dituzte, eta guk ez. Ideia hori zabaltzen hasi zen. Aurreko urtean berandu ibili ginen. Asmakuntza bat izan da. Aurten urtarrilean erabaki genuen lehenengo batzarra deitzea, eta hortik jendea animatu da.

2 Batzarren bidez antolatu dituzue, beraz.

Lehenengo batzarrean hamabi bat pertsona agertu ginen, kopuru polita. Helburua da herriaren festa bat izatea, herria auzolanean egitea. Denon artean egitarau partehartzailea egin genuen, eta denon artean erabaki genuen bi edo hiru egun izango zirela, eta asteburu hori izango zela.

3 Apiriletik 26tik 28ra. Zergatik data hori?

Ez dago data finkorik. Aurten horrela erabaki genuen, ez da



Ekhi Etxeberría Udaberriko festetako kartel iragarlearekin, Bakaikuko plazan. UTZITAKOIA

San Benito izan zelako edo santu bati lotuta. Aste Santua nola tokatzen zen, horren arabera egitea erabaki genuen. Datorren urterako balorazioan begiratu beharko dugu data egokia izan den. Agian datorren urtean maia-

tzera eramango edo martxoan ospatuko dugu.

4 Hurrengoetan pentsatzen ari zarete?

Balorazioa egin beharko dugu. Lehenengo hauek pasa behar

dira. Baina jendea galdezka dabil ea datorren urtean noiz izango diren.

5 Aurretik Bakaikuko festa egitarau horrelakorik zegoen?

Ez. Gerora bai ospatzen da San Juan eta gero festak, Santiagoak, uztailan.

6 Festa bat falta zen egutegian.

Falta ziren. Iturmendin eta Urdiainen, esaterako, festa txikiak dituzte. Beste batzuek udazkeneko feriak dituzte, bada guk Udaberriko festak edo festa txikiak. Hortik dator ideia.

7 Nola izan da antolatzeko prozesua?

Lehenengo gauza bi edo hiru egun hautatzea izan zen. Ekimen partehartzaileak antolatzeko erabaki genuen. Pintxopotea egin beharrean patata tortillaren lehiaketa antolatzeko edo aurretik frontenis txapelketa egitea eta finala festetan jokatzeko. Bakaikun ez da herri bazkaririk egiten, eta hori ere planteatu zen. Herri apustuan ere herritarrek parte har dezaten antolatu dugu, lau kapitain daude eta denok parte hartzeko modukoak izango dira probak. Denetarik sartzen saiatu gara. Azken egunean desmuntatua jarri dugu. Iganderako beste ideia bat zegoen, ez zen atera, eta gazte batek desmuntaiarena proposatu zuen.

8 Nola hartu du herriak?

Hasiera batean gogotsu zegoen. Orain ez dakit; ez dakit nolakoa izango den erantzuna. Zerbait desberdina egiteko gogotsu zegoen jendea, eta gogotsu jarraitzea espero dut. Karpa bat jarriko dugu plazan. Beti elkar-

tean zentratzen gara, eta horrekin hautsi nahi genuen ere. Beste festa eredu batzuk sortu.

9 Hurrengoak, uztailako festak, prestatzen ari zarete?

Biak batera hasi ginen. Kultura batzordea da festez arduratzen dena, eta udaberriko festak herrikoia goaok dira. Ezberdinak direla esango nuke. Kultura batzordean nahi duenak parte har dezake, baina ofizialagoak dira, diru gehiago mugitzen dute. Hauek autogestionatuagoak dira. Ez dugu gauza handirik bilatu. Herriak egindakoak dira.

10 Bakaikuko festetan jendetza biltzen da. Zer dute?

Etortzen den jendeari galdetu beharko diogu. Egia da, haurra nintzenez jende askoz gehiago mugitzen zela. Jendea gogotsu etortzen zen.

11 Bakaikuarrek egindako festak, bakaikuarrendako, baina kanpoko jendea joatea nahi duzue?

Jendea beti ongietorria da. Ostiralean Beietz! talde arbizuarren eta Iruñeko erromeria bat izanen dira, gero larunbatean egun handia izango da, eta herritarrena: apustua egongo da, herri bazkaria urdindarrek sukaldatzeko tresnak utzi dizkigute eta ondoren, Pantxo Valbuena mariatxi ezaguna. Gazte asanbladak DJ ibiltari bat antolatu du eta arratsaldean auzatea izango da. Bakaikun auzatea oso garrantzitsua da, eta ondoko herrietatik ere jendea etortzen da. Luzianok organoarekin musika jarriko du, eta ondoren DJ emakume batzuk. Hori izango da plana.

WEB DISEINUA GRAFIKOA ENPRESETARAKO EUSKARRIAK

LIBURU ALDIZKARI **MAKETAZIOA** KARTEL PAPER **GINTZA** APLIKAZIOAK

IRUDI KORPORATIBOAK **KOMUNIKAZIOA**

PUBLIZITATEA

gik
DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA

619 821 436 · 948 564 275 · info@gkomunikazioa.eus · Foru plaza, 23-1. Altsasu